



Xabier Lizardi

(1896-1933)

Antzerkiak

- *“Laino eta Izar”*
- *“Bi aizpak”*
- *“Ezkondutik ezin zitekeen mutila”*

JOSE MARIA AGIRRE EGAÑA

Xabier Lizardi

(1896-1933)

Antzerkiak

- *“Laino eta Izar”*
- *“Bi aizpak”*
- *“Ezkondur ezin zitekeen mutila”*



El poeta José M.^a de Agiré
«XABIER DE LIZARDI»

1896ko Apirilaren 18an Zarautzen Jaio zen.

— 1933ko Martxoaren 12an hil zen.

Koordinaketa: Azpeitiko Udala / Antzerki Topaketak

Azala: Txakel (Azpiazu y Urarte), S.L.

Maketazioa eta inprimaketa: Zubi

L.G.: SS- 729/96

I.S.B.N.: 84-921844-0-X

Azpeitian, 1996 Iraila

AURKIBIDEA

<i>Aurkezpena (Anjel Lertxundi)</i>	1
<i>Xabier Lizardi (1896-1933)</i>	5
<i>“Laino eta Izar”</i>	8
<i>“Bi Ahizpak”</i>	18
<i>“Ezkondu ezin zitekeen mutila”</i>	60
<i>“Euskal Antzerki Topaketak</i>	107

ZAPATAK OINEN NEURRIKO

Anjel Lertxundi



Urtemugek eta ospakizunek omenduaren lanak aztertzeke eta haren ekarria neurtzeke/berritzeke behar lukete batez ere.

Ez dakit Lizardiren eta Aitzolen aurtengo ehunurteurrenek haien ideario poetiko eta kulturalen gaurkotasuna aztertzeke eta gure gaurko ekimenen nolakotasunaz hausnarteta egiteko balioko diguten. Ezezkoan nago, erosoagoa baita beti atzera begiratzea, aurrera baino. Egokiera ederra galtzen ari gara, tamalez, galdera xaloenetatik hasi eta korapilatsuagoetara pasatu, eta geure buruen azterketa egiteko. Ez nuke, bada, bi gai nagusi zertzelatu gabe gelditu nahi:

- Berpizkundeko egitasmo kulturalak ba ote du gure gaurko gizartearentzat ekarririk?

- Gure gaurko jardun kulturalak eguneroko lanari soilik erantzuten dio, ala badago, Berpizkunde garaian zegoen bezala, etorkizunera-ko aurreikuspen eta plangintzarik?

Garrantzitsuak dira galderak, zailak erantzunak, eta hitzaurre xeme hau ez baldin bada ere debategui horri ekiteko tokia, ehunurteurren hauen inguruko lan guztiak, xumeenak bezala sakonagoak, galdera horien abara eginak balira, ospakizunek beste neurri bat hartuko luketeelakoan nago.

Euskaldunok olerkari gisa ezagutzen dugu batez ere Xabier Lizardi, zarautzarrak jenero horretan eman baitzituen emaitza ezagun

eta finenak. Badugu Lizardi prosalari giza eman zuen mailaren berri ere, poeta hil eta hurrengo urtean Euskaltzaleak elkarteak argitaratutako artikulu-bilduma interesgarriari esker.

Haren antzerki lanak, berriz, ez dira hain ezagunak, nahiz hiru antzerki obra idatzi, gaur liburu honetan argitara ematen direnak. 1932. urtean, Biotz begietan poema-liburua kaleratu zuen urte berean, bi antzerki-lan argitaratu zituen, Laño ta izar eta Bi aizpak. Gerrra amaitu eta hamabost bat urte igaro ziren hiruetan interesgarriena, Ezkondu ezin zitekeen mutilla izenekoa, argitara eman arte Egan aldizkariko orrietan. Biotz Begietan olerki liburuan argitaratutako Xabiertxo'ren eriotza poema luzea ere nolahako Gabon-ikuskizun edo estanpatzat har dezakegu.

Ez naiz arituko obra horien edukiaz horietan ageri diren eragin nabarmenez (Molière rena esate baterako, Ezkondu ezin zitekeen mutilla obran batez ere), edo literarioki duten mailaz, beste maila bateko azterketa eskatzen duen lana baita. Alderdi bat, Lizardiren obraz hitz egiterakoan joan batere kontutan hartu ez dena eta literaturgintzan garrantzi oso duena, ekarri nahi nuke gaurkoan hona: hizkera literarioarena.

Zapatak oinaren neurrikoa behar duen bezala, hizkerak obraren neurrikoa behar zuela uste zuen Lizardik ere. Horregatik ezagutzen ditugu, hizkera literarioari dagokionez, hiru Lizardi gutxienez. Olerkietako estilo zehatz, zorrotz, erritmiko eta guztiz landua batetik. Artikuluetakako estiloak, berriz, zorrotasuna eta zehaztasuna gordetzen ditu olerkietako estilotik, baina lauagoa da hizkera, tarte handia dute ironiak eta umoreak, olerkietako kontsizioa lortzeko trepetak (aditz trinkoa, zilegitasunaren muga-mugan dagoen deklinabidearen murrizketa, sinestesiak...) beste modu batekoak dira artikuluetan. Egia da artiku-

lortua baitzuen, baina bi hizkerei egindako gainbegiratu batek berehala argitzen dizkigu haien artean dauden alde nabarmenak prosari zein olerkiari zor zaizkionak, jakina.

Olerkiak eta artikulua irakurtzeko eginak dira, ordea. Begientzat pentsatuak. Irakurri ahala zerbait ulertzen ez bada, atzera egin daiteke testu idatzian. Begiak bildu, eta hausnarketa egiten dugu irakurritakoaz. Testuak idarokitako ideiarenekin bat apuntatzen dugu "in margine". Liburua itxi, eta hurrengo baterako uzten dugu liburua jarraipena...

Antzerkia, ordea, belarrietzat idazten da. Entzuteko egina da antzerki-pieza bat. Bat-batean lortutako arreta da garrantzitsua, ez baitago testuan atzera egiterik, atsedena hartzerik, begiak bildu eta entzundakoaz odolztzen hasterik, piezaren haria galduko baikenuke bestela.

Ohart naiz kontsiderazio hauen singletasunaz, baina ezagutzen ditut, euskal antzerkian zein telebistan entzuten ditudanagatik ezagutu ere, kontsiderazio single horiek kontutan ez hartzetik datozkigun miseriak, hainbat antzerki eta gidoiek irakurtzeko eginak direla baitirudite, entzuteko baino. Eta honaxe heldu nahi nuen Lizardiren hiru antzerki-lanen edizio interesgarriaren atari honetan: Biotz-begietan olerki-liburuko estilista finak badaki bere antzerki-lanak entzuteko direla, eta begiek ez bezalako legeak dituztela belarriek Horregatik, Lizardi antzerkigilea ezagutzen ez zuen irakurlea harrituko egingo da antzerki-lanok irakurtzerakoan. "Ez dirudi Lizardi!" esango du hainbatek, nekez aurkituko baitu olerki lanetan zizelez findutako estiloa. Lizardik, ordea, entzuteko idatzi zituen obrok, eta entzunez (antzoki batean ikusi eta entzunez, alegia) hartzen dute obra hauek, antzerki-lan guztiek bezala, beren maila osoa: kaleko hizkeratik gertuago, perpausa bizia goen abaroan, ziri eta ateraldiei bidea zabaldurik...

Zapatak oinen neurriko, hizkera literarioak ere obren neurriko behar duela erakutsi zigun Lizardik.



Liandron

Jose Maria Agirre Egaña “LIZARDI” Zarautzen jaio zen 1896ko Apirilaren 18an. Aita Zientzia Fisiko Kimikoetan lizentziatua zen. Hamar urte zituela familia osoa Tolosara joan zen bizitzera eta hemen egin zituen batxiler ikasketak. Aita, 17 urte zituela, hil zitzaion 1913an. Seme zaharrena izanik, familiaren sostengu bilakatu zen, eta bere ikasketak utzita bulego batean lan egiten hasi behar izan zuen. Hala ere ikasten jarraitu zuen bere kasa eta lege ikasketak Madrilen bukatu zituen, Unibertsitate Zentralean, 1917an.

Zarauzko egonaldietan ezagutua zuen Pakita Eizagirre eibartarrarekin ezkondu zen, 1923an. Zazpi seme alaba izan zituzten, baina hiru hil egin zitzaizkien, bi jaioberritan eta bestea Gabon gau batean, honen oroimenez olerki bat idatziz.

“Perot” sare metalikoen fabrika jereante lanetan hasi zen eta hala ihardun zuen, 1933ko martxoaren 12an, 36 urte zituela pulmonia batez, hil arte. Lanean eta langileekiko harremanetan oso umila eta fina izan zen.

Arrasaten sorturiko “Euskaltzaleak” kultur taldeko partaide izan zen eta 1928an taldearen lehendakari aukeratu zuten. Euskararen alde lan haundia egin zuen, 1930etik aurrera idatzitako olerkiak 1932an argitaratu zituen “Biotz begietan” titutupean. Euskara menderatu arte ez zuen atsedetik hartu eta honela euskara aberats baten jabe izatera iritsi zen lanaren poderioz. Hizkuntza arrunta menderatzearekin ez zen konformatzen, hizkuntza poetikoa lortu nahi izan zuen. Honela olerkigintzan maila egoki bat lortu zuen.

Lizardi hil ondoren “Euskaltzaleak” elkarteak liburu bat argitaratu zuen “Umezurtz Olerkiak” izenburuarekin bere zenbait olerkiz osatuta eta baita bere prosazko hitzaldi eta artikulua ugariz osaturiko antologia bat ere “Itz lauz” izenburupea 1934an.

Lizardik “Euskaltzale” taldeaz gain, Gipuzku Buru Batzarraren idazkaritzan ere lan egi zuen.

Antzerki lanean hiru obra ezaguten zaizkio “Laño ta izar”, “Bi aizpak” eta “Ezkondur ezin zitekeen mutila”.

XABIER LIZARDIREN LANAK

* ANTZERKIA:

LAÑO TA IZAR
BI AIZPAK
EZKONDUR EZIN ZITEKEEN MUTILLA

* POESIA:

BIOTZ BEGIETAN
UMEZURTZ OLERKIAK



* KAZETARITZA LANAK:

ITZ LAUZ / Aldizkarietan argitaratutako prosazko artikuluen bilduma da. Artikulu hauetan eguneroko gertaerak, euskararen arazoak eta olerki lanak dira gai nagusiak.

* Beste hainbat lanen artean **Ipuinak eta Itzulpenak** ere baditu.



*Xabier Lizardiren semea,
Ion Agirre lehen jaunartzean.*



Xabier seme zaharrenarekin hondartzan.



Xabier Lizardi gaztetan lagunekin.



Lizardiren Lapida



“LAINO” ETA “IZAR”

OIALA

(IPUIN ANTZEZGARRIA)

ANTZEZTOKIA: Landa. Ilunabarra.

LEHENENGO IKUSGAIA (linterna-plaka): ortzian izar eder bat, azpian hodei gorritzta duela.

IPURTARGIAK: Hor-hemenka, inguruko sasi-larretan.

NEXKA-MUTIKO TALDEA: zapia jasotzerakoan, margo-izpi ahulez erdi argitu eta nabarmenduak, zortzi bat nexka eta beste hainbeste mutiko, artzain eta artzain-andre jantzian.

ORKESTAZ ETA ABESTIZ: zapia jasotzeaz bat orkestak laguntzen diela ekin bekiote neska-mutikook “Artizarra zeruan” abesteari:

Neska-mutiko taldeak.- Artizarra zeruan

agertzen denean,

ipurtargia ere

izar da lurrean.

O, zein eder, goikoa

bagenu mendean:

hodei gorritzta horretan

bil genezakean!..!

Ipurtargia har dezagun, (Bi aldiz.)

besterik ezean.

ORKESTA HUTSAK jarrai bekio.

DANTZA-ANTXEAN hurbil bitez nexka-mutikoak inguru sasieta.

IPURTARGIAK ATZITUZ betoz berriro erdira, eresiaten arioren argiok darabilzkitelarik

II.

ORTOTS LARRIA (acordes-trueno), orkestak.

ARGITU BEDI ANTZEZTOKIA, tximistaz bezala, bat batean.

MAITAGARRI BAT ager bedi, atzetik, bekokian izar urdina duela.
Betor aurrera, txikiek, agurka, bide-eginez, esku-
argiak luzatzen dizkiotela.

Maitagarriak. Gabon, maiteok. Zuen hots gozo horrek erakarri
nau basotik. Harrigarria! Gaur den egunean, eus-
kal-kanta zaharrik dakiten umeak!... Nortzuk zai-
tuztet, ba, aingeru eder horiek?

Mutiko batek.- (Aldamenekoa ukalondoaz jotzen duela.)-
Esaiok hik.

Beste mutiko batek.- (Lehengoari.)- Hi ni baino haundiagoa haiz!

Nexka batek.- (Aldamenekoari.)- Hau ez dun herrikoa...

Beste nexka batek.- Enee, ez! Horrelako andre apainik!...

Maitagarriak.- Ez zarete ausartzen? Ez beldur izan. Maitagarri
bat nauzue: ez dizuet ezer txarrik egingo... Ea!
Hik, txikien horrek, esango didak: nortzuk zare-
te?

Guziek.- (Barre-purrustaka.)- Eneee! Pottolooo!! ...

Pottolok.- (Urrats bat aurrera.)- Andrea: euskaldun jatorren
haurrak gaituzu. Hargatik dakigu euskaraz; har-
gatik ere, euskal kanta eder askoak...

Maitagarriak.- Ederki, Pottolo maxail-gorri! Txolo Pottolori, eta
txalo bere lagunei!... Baina orain, esaidazue:
abesti zahar gozo horiek nork asmatuak diren ba

al dakizue?

Nexka batek.- Gure herriko Manttoni zaharrak, andrea!

(Mutilek, barre-algara haundia)

Mutiko batek.- Tuntun alaena!... Ez, andrea, ez: Elizako organis-
ta jaunak!

(Nexken barre-algara haundiagoa)

Maitagarriak.- Ez duzue asmatu; ez nexkek eta ez mutilok. Hik
bai ote dakik, Pottolo, hain jakintsu haizen
horrek?

Pottolok.- (Buruari hazka, lotsatu askirik).- Nik, ... egia
esan,... horrenbeste ez dakit, andrea...

Maitagarriak.- Ez?... Eseri, ba, guziok, eta nik esango dizuet
ipuin bat..., ederragoa!

(Txiki guziak eser bitez lurrean.)

Ikusten al dituzue zeruan izar eder hura, eta,
behean, laino gorrixta bat?... Horiexen ipuina
esan nahi dizuet, ba: “Laino” eta “Izar”en ipui-
na, alegia.

Behin bai omen ziren, orain milaka urte, zuek
bezelakoxe anai-arrebatxo bi... Gau eta egun
mendirik-mendi zebiltzan. Hara! Bertan agertu...

BIGARREN ARGIRUDIA (Linterna):

“Laino” eta “Izar” mendiz medi.

Nexka-mutikoek.- Oooooiii!!... (Esku-argiak ikusgaiari zuzenduz)

Maitagarriak.- Mutikoak “Laino” zuen izena: nexkak, “Izar”.
Atariz-atari -naiz baserri, naiz torre-etxe - elka-
rrekin kantatzea zuten bizimodua. Hamaika

sagar eder, hamaika lukainka gorri, eta txerriki gozo, eta oilanda zuri, eta gazta guri... sartzen zituzten haiek zorro haundi batean!

(Nexka-mutikoei begiak biribiltzen zaizkie.)

Bainan...

ORKESTAK, ukaldi labur bat (acorde preliminar.)

...entzun, entzun, “Laino” eta “Izar” kantari.

“NIK BADUT MAITEÑO BAT” urrutian, bik abestua, behetik ORKESTAK laguntzen diela.

BIGARRENEAN, NEXKA-MUTIKO GUZIEK abes bezate, abestiaren aiora esku-argiak darabiltzatelarik.

ISILUNEA. Berriro guziak maitagarriarengana adi.

Behinola... jauregi eder baten ateetan zirelarik...

HIRUGARREN ARGIRUDIA (Linterna): Jauregi-aurrean

Nexka-mutikoek.- Oooiii!! (Lehen bezala).

Maitagarriak.- Bertan erregina gazte eder bat gaixorik zegoela jakin zuten... Oso gaixorik ezen, etsai zital batek begizkoa eginik baitzegoen.

Orduan -adiskide baininduten- badatozkit basora galdezka, ea erregina inola senda al zitekeen... Nik, baietz: baina, hartarako, “Lezebeltz”eko dragoi izugarria...

Pottolok.- (Lurretik jaikiz) - Andrea: Gure aitak “herensu-

gea” esaten du, eta ez “dragoia”...

Nexka-mutikoek.- Txissst!!!...

Maitagarriak.- (Barre algaraz)- Bai?... Ondo zegok, Pottolo...
“Herensuge” esan dezagun ba... Izan ere, oraingo umeok badakizue gauzez!

Lezebeltzeko herensugea, ba, hil behar zutela esan nien: eta haren behazuna erreginari janarazi.

“Laino”k berehala, baietz: berak hilko zuela!

LAUGARREN ARGIRUDIA

(Linterna): Zilarrezko aizkorez

Eman diot, bada, zilarrezko aizkora zorrotz bat, eta han abiatu da beldur haundirik gabe, Lezebeltzerako bidean barrena, “Izar” lagun zuela.

Ni eta beste maitagarri asko, haiek ohartu gabe, atzetik jarraika gindoazkien.

Honetan, heldu gara Lezebeltzera.

BOSGAREN ARGIRUDIA: Lezebeltz.

Nexka-mutikoek.- Oooooiii!!!... (Lehenetan bezala)

Maitagarriak.- Dragoia... (ai! “herensugea”... Barkatu, Pottolo) esnatu-berria zen. Irten zaigu bidera... Ai, ai, ene! Hango iskanbila larria, hango borroka gaitza!!! Gogoratu hutsak zorarazi behar nauela uste...!

ERESI NAHASI ANTZEKORA jo lezake orkestak, azpitik maitagarriak liskarra edestu-bitartean.

TXIKIAK URDURI eta gero eta adiago.

Sartu zaio arin “Laino”... Jo herensugea aizkoraz, eta jas! Larru lakarrean irrista... Altxa da erdika pizti zital ura, sabel nardagarri gainean, ta...-Jainkoa bezak lagun, maite!- erpe zorrotzaz atzitu dio iztarra, eta goitik behera urratu... Baina, mutilari... bost axola!... Amorru haundia-goz han doakio berriro... Zango giharren gainean luzatu du gorpuztxoa, luzatu, luzaatu...! Gorputz gainetik, besoak goitu ditu, aizkorari itsatsita... Eta, halako batean..., dzast! Haizeari txistu eragiten ziola, horra amildu bat-batean aizkora, herensugeari kaskezurra hautsi, eta zilarra lurpean ezkutatu arteraino!

SEIGARREN ARGIRUDIA: “Laino” garaile.

Eta, horra non duzuen herensugea burutik lurrari josita, isats kozkorduna azken larriez astintzen!

Nexka-mutikoek.- (Poz haundiz lurretik jaikiz) - Gora “Laino”!
Gora, gora, goraaa!!...

EZPATA-DANTZA mutilek, erdian, nexkak inguruan, esku-argiak gorantz, dituztela.

INGURUTXOA, berehala, guziek elkarrekin.

ORKESTAK lagunduta.

BAT-BATEAN, ORKESTAK ostots bat.

ZAZPIGARREN ARGIRUDIA: “Laino” hilda, “Izar” negarrez.

TXIKIAK GELDI.

HIL-ERESI LABURRA. (hil-eresi hori egin daiteke, “Nik badut maiteño bat”en bigarren zatia zerbait ukitu eta “tono menor” delakora bihurtuz.)

Maitagarriak.- Negar..., negar..., negar!!!... Negar egizue, nire txikiok! Hil baita “Laino”..., hil baita!!!, hil!!! Zauri izugarri hartatik odolez hustuta!...

TXIKIEN ITUNA eta negarra

Maitagarriak.- Zatozte, maitagarri adiskideak: zatozte, “Laino” ederraren gorputza zuekin dakartzutela...

ARGITASUN BIZI bat-batekoa.

LAU MAITAGARRI sar atzetik, bekokian izar urdin bana, “Laino” hilda, dakartela.

IZAR betor gorputzaren atzetik, atsekabez,

BESTE LAU MAITAGARRI, guzien atzetik, eskuan lore eder batzuk dituztela.

Zatozkit zu ere, Izar gaixo bihotz-erdibitua!...

Eta zuek, nire lagunak, gorputza estal ezazue lorez.

GUZIEKIKO TALDEA: etzanik “Laino”, “Izar” aldamenean belauniko, inguruan nexka-mutikoak.

SAGAR-DANTZA dantzatzuz, maitagarriak - esalea ez besteak -iraul bitzate loreak gorputzaren gainean.


GUZIEK GELDIRIK osatu bezate talde ikusgarria.

Laguntxoak: gure ipuina amai
dezagun...

Erregina sendatu zen, guk herensu-
gearen behazuna emanda. Baina “Laino”
eta “Izar” eder haietaz ez dakizue zer ger-
tatu zen. “Izar”ek ez zituen besoak
“Laino”ren lepotik askatu nahi... Orduan,
betiko elkarrekin egon ahal zitezen, zerura
jaso genituen, bata laino gorritzat bihurtuz,
eta bestea artizar eder... Hortxe daude
harrezkero, euskal-ilunabar ederrenak
apaintzen.

Orain ikusi, nire maite txikiok...
Lainoa eta artizarra itzaltzen ari dira...
Gaua badator... Gure mendietan “Laino”
eta “Izar”en hots zahar ezti haiek ahuldu
egin dira, eta ia ahaztu... Sasian bildu
dituzuen ipurtargiok bihur bitez izartxo
zuen eskuetan, eta gure gaua ez da izango
beltz: gau oskarbi, gau izartsu, goiz eder
baten aurrelari, bai, izango da.

(Entzuleari zuzendu biezazkio hurrengo
hitzok).-



Euskaldunok euskaldunagotu zaitezte, eta zuen kanta zaharrek
kin batera iraun beza euskara zaharragoak egunen azkeneraino!...

ORKESTAK: Lehenbizi “Nik badut maiteño bat” oroitaraziz.
Gero “Artizarra zeruan”

ABESTU nexka-mutikoek hurrengo neurtitzok, maitagarriek,
ahopeka, lagun dituztela.

Artizarra zeruan
aurki da ezkutatu.
Etxera sar gaitean:
denak zain ditugu.
Nondik zatoz, enetxo,
amak esan digu:
ipurtargiak jaso
eta izartxo biurtu!
Ipuin bat, zein polita!
amatxo dakigu...

ORKESTAK jarrai bekio, bakarrik.

Agur, euskotar onok:

Euskadi maitatu!

ORKESTAK jarrai beza, oihala, geldi-geldi eraitsi bitartean.



*Xabierren emaztea.
Francisca Eizagirre.*



Afaldandoan irakurtzea famili osoa bilduta, Lizardiren garaiko ohitura bat zen.

“BI AHIZPAK”

Lizarditar Xabierrek Pantzeratik antolatua.

ANTZEZKIGILEAK

PANTXIKE. ANDRE MADALEN

MANTTONI. Hiru Mutikoak: Xabier- Iñaki- Yontxu

ALKATEA. DONOSTIAko ALKATEA

LEHENENGO EKITALDIA.

(Etxe-barru txiro, baina txukuna: mahaia, aulkiak eta abar Ezkerretara, ate bat. Atzean, beste bat, eta leihoa ere, biak baratzera urratuak.)

(Pantxike ta Manttoni, ahizpa Nezkazaharrak urterik haiei antzematen ez da erraz -elkarrenaldamenean eserita daude, dirua mahai-gainean batuz. Zenbatzailea, Pantxike, Manttoni, ahiparen beso-gainetik begira).

I.

PANTXIKE TA MANTTONI.

- Pantxikek.- ... eta bederatzi, berrogeita bi...; eta bost, berrogeita zazpi...; ta zortzi...
- Manttoni'k.- Bart arratsean adina, Pantxike?...
- Pantx.- ... berrogeita hamabots...; eta zortzi... Bai, Manttoni bart arratseko kontua ateratzen zaidan. Honenbeste ez geninan jaso San Juan aurreko azokaz geroztik.
- (Zenbatzen jarrai beza, isilik, Manttoni oro begi. Halako batean, herriko erlojuak kanpai bat: Manttoni'k burua jaso.)
- Mant.- Pantxike!...
- Pantx.- Manttoni...? (Bere zereginari utzi gabe).
- Mant.- Zer ordu dinagu?
- Pantx.- Al zekinat!... (Isillune laburra) Bederatzi eta erdiak, ustez.
- (Diruak poliki antola bitza mahai-kutxan -kaxoian-)
- Mant.- (Jeiki, zapi bat hartu, eta erridiei hautsa ken-

duz). Ez zekinat irudipena dudan, baina, Amabirjinetako prozesioaz geroztik, burua etzaukanat bere onean. Izan ere, halako eguzkiak hituen egun hartan!... Hamar eta erdiak direla esan bahidan, berdin-berdin sinistuko nian... Halaz guztiz ere, hamar eta erdirik ez dela banekinan!

Pantx.- Bederatzi eta erdikoa izan dun.

Mant.- (Etsi-etsian) Bederatzi eta erdikoa, alegia...

Pantx.- (Isilune baten ondoan). Hi ez hago onik, Manttoni...

Mant.- Onik ez ote nagon, ba?... Ez ezan uste: buruak ematen zidan hori batzuetan...

Pantx.- Leandro jauna deitu behar huen... Urteak, Manttoni; adina dabilkin hik atzetik!

Mant.- Adina atzetik! Zertarako behar ote natzaion?...

Pantx.- “Okel-erre”neko atsoa ere horrelaxe ibilia dun. Azkenean, sendagileak “rizinoa” eman zionan, eta bertan bota zizkinan haize txar guziak.

Mant.- Haizeak? Hizea besterik ez, Pantxile? (Sorbaldak uzurtuz) Izan ere, “Okel-erre”neko atsoa...!; behiaren gorotza ere, sendagileak emanez gero, pozik jango zikenan hark...

Pantx.- Badakin, Manttoni, ama zenak ere, urteek menderatu zutenean...

Mant.- Enetxoa! Amarena ez dun berdin: hura bi alaba eginik huen!

Pantx.- Eta zer zion?

- Mant.- Ai!, asko, Pantxike!... Leandro jaunak ondotxo zekin... (Aldapena) Baina, horiek ere, enetxoa, hartzeko kanpaia denean ditun azkarra! Gainontzean?: inoren osasuna zaintzeko, bazekinat nik horiek hainbat... Zer egiten dinате, ba?... Zereko jakintsuak!... Jendea asperrarazten besterik etzekinate eta...!
- Pantx.- Adi ezan, adi ezan... Gazte, berri, Madrilgoa edo delako hori... -zera, “Boxt”eneko goian bizitzen jarri dena... -hori azkar porrokatua omen dun, ba...
- Mant.- Azkarra, beraz? Azala, esan bahuen!... Bazterretan neskaxa gazteei goxokeriak esaten...; horretan azkarra omen dun. Katalinek dienez!
- Pantx.- Uuu!... Katalinek! Ikusi ere egin al din, ba hura?
- Mant.- Ez; ikusi ez!... Hitz egin ere!... Eta, guzia jakin nai ba-dun, besotik heltzera egin eta ozta-ozta ihesi ahal izan omen zionan!
- Pantx.- Ut, txatxua hi berriz! Dena sinisten dun! Hark gizonezkoari urreratzen ez utzi!
- Mant.- Ba, ez dun bakarra... Hor zeuden “Atarramentu”neko neska, eta “Txepetx”eneko, eta Ixabel bera ere, emakumea!...
- Pantx.- Ixabel!
- Mant.- Ea: Alkateak “señorito” hori herritik bidaliko ote duan ere zabaldu dun eta... Izan ere, nik beti esaten dudana: arrotz xankame horiek dinате hemengo neskaxei esan beharra?...Botako nitizken denak ibai zabalera?

- Pantx.- Um!... Hiri ere zertxobait goxo esanez gero...
- Mant.- Ui! Hara bestearen ateraldia! Ez al zidatenan esan, izan, horiek baino galai ederragoak! Bai makinatxo batek!...
- Pantx.- Eta, nezkazar gelditu hintzen?
- Mant.- Eta hi?... Honek eman zizkigun ederrak!
- (Isilunea. Etxe-lanetan hasi bitez Pantxike, altzoan otarra hartu eta babarrun-zuritzen. Manttoni'k, etxe-garbiketa buka, erratza baztertu, eta tresna oro antolatzen dihardu.)
- Pantx.- Bihar igande... -Oilaskoa hilko ote dinagu?
- Mant.- Bai Pantxike, il dezagun... Hain xuxen ere, oilasko-gose nagon aspaldi honetan.. Eta zer da, guzria ere? Haragia baino garestiago ez zetorren, eta!
- Pantx.- Ez garestiago, dion? Merkeago esan nahiko dun! Bai hainbat! "Kazkazuri" harakinari galde bestela... Lapur galdu bat besterik ez dinagu hori. Horrena gehiegikoa dun. Utziko al dinagu guzcion artean etxea bete okel!
- Mant.- Asmatuko liguken orduan ere hark lapurretabidea!... Baina, horiek horrela direla, noan oiloetara.
- (Aterantz bihoa, "eskalaproietan" oinak sartuz. Irten-haginean, geldi bedi. Aizpak burua jaso du, eta biak beude adi. Baratzako ate-hotsa, gero oin-hots astuna, gero hutsa. Berehala, norbaitek ataritik, ahots lodiaz:
- Alkateak.- (Ataritik)... Eup! Ez al da inor bizi?

(Horren ondotik, isilune luzea berriro. Neskazar biak, beren hartan geldi. Atarikoak, ozenago:)

Alkateak.- (Ataritik)... Eup! Ez al da bizi inor?

(Manttoni'k nozbait ere burua atera beza:)

Mant.- Ene!... (Burua iraduz berriro sarturik) Pantxike, Alkate jauna dinagu!

(Betor Pantxike'rengana. Honek babarrun-otarra mahai-azpian gorde beza. Biak, eskuak mantalaz igurtzi ondoren, bihoaz baratza-aterantz, agurka. Alkatea ager bedi atean).

II.

PANTXIKE, MANTTONI ETA ALKATEA.

Alk.- Pantxike, Manttoni; barkatuko didazue zuek nahaspilatzeraz etorria...

Mant.- Gu nahaspilatzeraz, Alkate jauna? Bego isilik! Berorren etxean sartu dela egin beza. Hementxe; eseri hementxe...

Pantx.- Hemen, hemen: besaulki honetan hobeto egongo da. Eta, andre Ageda onik dago? Eta txikiak? Hain xuxen ere atzo ikusi nuen txikiena...
(Alkateak hitz egin nahi luke, baina tarterik ez diote ematen.)

Mant.- Esaion Alkate jaunari, Pantxike, esnez behartuz gero, bere etxerako lain izango genukeela...

Pantx.- Horixe bai, alegia! Ez gehiegirik dugulako, baina...

Mant.- Haurrak zer diren badakigu; haiek, eman ahala

garbitzen baitute!

(Alkateak berriro ere hitz egin nahi, baina alferrik)

Pantx.- Oraintxe joateko nindunan, hain xuxen ere, Alkate jaunarenera. Baditugu ilar batzuk berebizikoak, eta beharbada andre Agedak pozik hartuko lizkiguke. Badakigu berori oso zalea dena, Alkate jauna...

Mant.- Aurtendaino, bederik, zerbait eman izan digu lurrak. Hemendik aurrera lanak... Hor gaineko etxe zahar hori egingo balute, agur gure eguzki goxoak!

Pantx.- Nolanai ere, guzien onerako ez al da ondo ematen duten baratzak ez ondatzea?...

(Alkateak hitza atera nahi: besteak tarterik ez ematen):

Mant.- Bai nik uste! Eta..., Madrildarra omen da, hain xuxen ere, gaineko sail hori erosi duena...

Pantx.- Madrildar nahiz donostiar, erosteko eskubidea badin. Baina... nolabait, Alkate jauna, gain horretan etxerik egitea galerazi ahal ba-liezaioke...

Mant.- Hori, hori, bada! Ez da guregatik bakarrik, noski: berorrek badaki, Alkate jauna...

Alk.- Bai, bai ikusiko dugu, ikusiko dugu, inondik ahal baliteke... Baina, orain-oraingoz, badut beste arazo bat zuekin lehenago erabaki beharra... Jakin nahi nukeena..., tira..., nola esango nuke?... , alegia, mesedetxo bat egin nahi ote

didazuen...

Pantx.- Mesedetxo bat...

(Elkarri kezkaz begiraturik)

Alk.- (Isilune baten ondoan) Hara: hauxe da guzia.
Udako oporraldia (barkazioak) bitarteko, muti-
ko umezurtz bat etxean artuko al-zenukete...

(Isilunea. Ahizpak, elkarri ondo begiratu ondo-
ren, atsekabez hitz egin biezaiote)

Mant.- Ai, ai, ai! Ai ene!... Eta non sartzeko guk haur
gaixo hori?... Biok ere oxta-oxta hartzen gaitu
txabola xar honek-eta...

Pantx.- Izan ere, nolatan hartu etxean inoren haurrik,
non etzan ona-eta ez eskaintzekotan?... Gure
ezerez gorrian!... Hori dago bada!

Alk.- (Zer-erantzun bila, baina aurkitu ezinik) Tamala
da...

Mant.- Eta nondik norakoa genuke haur hori?

Alk.- Donostiakoa... Hoge bidali dizkidate, eta han-
hemen banatuak nituen guziak. Zuei ez dizuet
adierazi ezer, tokiz oso urri zaretela bai bane-
kien. Baina, azken orduan, zer gertatuko-eta,
Etxezuriko atsoa gaixotu... Gaur goizean; mutil
kozkor horiek iritsi direnarekin batera!
“Etxezuri”koa hiru hartzekoa nuen, eta horra,
orain hirurok beste norabait zuzendu behar... Ni
bi hartuta nago, eta gehiagorentzat tokirik ez...
Donostiako Udalaren eskoletakoak dituzue, eta
nik ere, jakina, hango Alkatearekikoa ondo egin
nahi, eta...

- Pantx.- Hauxe da, ba, lana; eta guk inola ere ezin!...
- Mant.- Besterik inork herrian ez ote litzazke hartu?
- Alk.- Haur bakoitzeko eguneko duroa eta saria...
(Isilunea. Ahizpak geldirik)
- Pantx.- (Erruki-hasperen larri bat boteaz) Aingeru gaxoak!
- Mant.- Kale gorrian uztea ere Jainkoak ez din agintzen, ba!
- Pantx.- Bihotzik duen kristauak ezin lezaken hori egin, Manttoni...
- Mant.- Atari soilean, alajaina, errukarri horiek! Gurera ez-eta, nora joan behar dinате, bada, esaidan?... “Txanbolin”enera?... “Prakax”enera?...
- Pantx.- “Txanbolin”enera, enetxoa!
- Alk.- Gizarajoak, zortzi badiu bereak-eta...
- Mant.- Ez dago zer esanik gehiago, tira!... Mutiko gajo horiek bidal biezaizkigu, Alkate jauna!
- Alk.- Baina..., hirurak behar dituzue?
- Mant.- Hrirak, hirurak!... Zer egingo dinagu, ba , Pantxike?
- Alk.- Non sartu behar dituzue, ordea?
- Mant.- (Eskua bularrean duela) Bihotzik badinagu, ala ez dinagu, Pantxike?
- Alk.- Bai, hori bai; baina oztopo haunditxoa izango da zuentzat... Tokirik-eza...
- Pantx.- Tokia? Antolatuko dugu, nola hala! Manttonik

dioena, Alkate jauna: bularpean zerbait dugu-nok... Beheko gela, haundi-askia da... Gu man-dioan etzan gintezke.

Alk.- Mandioan, emakumea? Eta ez al litzateke ego-kiago mutiko horiek han sartzea?...

Pantx.- Gaixoak! Ikusiko balu, Alkate jauna, gure man-dio hori!... Eguzkiak eta haizeak bere mende dute zeharo hartua: ez al da hala, Manttoni?

Man.- Ametsetan ere, berorrek ez luke han bere burua ikusi nahi... Baina, moldatuko ahal gaitun, enet-xoa! (Ahizpari) Ez bedi estutu, Alkate jauna.

Alk.- (Zutik) Atsegin haundia eman didazue: oso zarete onak eta bizkorrak. Etxean ditugu muti-lok: berehala ekarriko dizkizuet.

(Isilunea. Alkatea aterantz)

Pantx.- (Ez-arian bezala). Egunero duroa esan du, ez da hala, Alkate jauna?

Alk.- (Geldituz) Bai, haur bakoitzarengatik egunero duroa. O, eta txintxo ordaintzen duen jendea da! Ea, begira: Donosti bateko Udalak!... Jakina, nahikoa nahaspilatuko zaituztela mutil horiek; baina hilabete azkar joaten da...

Mant.- (Isilune baten ondotik) Hilak zenbat ditu gaur, Pantxike?

Alk.- Dagonilak (Abuztuak) hogeita seigarrena, egu-tegiak gezurrik ez ba-dio.
(Ahizpa biak isilik. Badirudi era bereko zenba-
ketak egiten ari direla. Alkateak aterantz egiten du).

Esandakoa, bada: berehala hemen gara.

Pantx.- Bai, bihoa Alkate jauna, haur gaixo horien eske, guzia antolatuko dugu eta.

Alk.- Bost minutu barru hemen gatoz.(Bihoa).

III.

PANTXIKE TA MANOLI.

Mant.- Bai, egina zagon, Pantxike: haur errukarri horiek, nola utzi behar genizkinan, bada, atarian?

Pantx.- Hago isilik! Alkate jauna hori esaten ari zela, xamurtu zaidan barren guzia. Pozik ikusi izango nizkinan orduantxe bertan hirurok atetik sartzen!

Mant.- Nik dakizkidan zenbaitek ez zinan, ez baiezkoa hain erraz emango...

Pant.- Bai; irrikitzen nagon, zein etxeetan hartu dituzten jakiteko. Zeken asko baitzagon bazterretan: zeken asko!

Mant.- Entzun dun: Etxezurikoak, alajainena!, hiru hartzekoak omen hituen... Baldinbaitere! Haiek duten etxea izanda: hau adinako lau badun-eta. Hamabi hartu balizkinate ere!...

Banoan, banoan oiloetara, mutiko horiek iritsi bitartean. (Atetik) Hara, berriz: andre Madalen dinagu.

(Bihoa. Pantxikek babarrun-otarrari ekiten dio berriro).

- A. Madal.- (Ataritik) Bazoaz, Manttoni?
- Mant.- (Berdin) Oiloetara, andre Madalen, oiloetara: berehala nator. Sartu, sartu, Pantxike hor duzu-eta.
(Andre Madalen ager bedi).

IV.

LEHENGOAK ETA ANDRE MADALEN.

- A. Mad.- Egun on: zer dugu, Pantxike?
- Pantx.- Hementxe ari gara, andre Madalen...
- A., Mad.- Babarrun-zuritzen?... Adi ezazu, adi ezazu eta...; zuek hartzen omen dituzue Etkezurira behar zuten mutikoak, eee?...
- Pantx.- Ene, mila bider! Badakizu dagoeneko? Nork esanda?
- A. Mad.- Matxin Bizardok esan dit: oraintxe topo egin dugu biok.
- Pantx.- Eta Matxin Bizardok nondik zakin?
- A. Mad.- Erretore jaunaren bidez, noski, erretoreari alka-teak esanda.
- Pantx.- Tira ba, bai: egia da. Pentsa ezazu, Alkate jaunak bere larritasuna adierazi digunean! Eta bakarra hartuko genuelakoan zetorren gizarajoa. Baina, errukia tartetik denean, andre Madalen...!
- A. Mad.- (Batere sinisten ez diotelarik) Horra ba!... (Eser bedi) Eta, non sartu behar dituzue!
- Pantx.- Antolatuko dugu zerbait, ez dago estutu-beharrik... Eta, esan, esan, zuk jakingo duzu-eta: zei-

netan-beste hartu dituzten...

A. Mad.- Haurrak, alegia?... Bada..., bata Alkatea, bestea Erretore jauna, biok bina. “Ttonttor”enekoak, bat. Herrenaren alargunak, hiru. Eta zuek...; baina zeuon berri bai al dakizue... A eta, zera..., “Kukutx-eztul”enekoak, “Argiña”neko atsoak...

Pantx.- “Argiña”nekoak zenbat?

A. Mad.- Bakarra.

Pant.- Bakarra? Xuhurra, ez bestelakoa!... Eta..., “Kukutx-eztul”enekoa ere esan duzu...?

A. Mad.- Bai: lau hartzen ditu.

Pantx.- Baldinbaitere! Hark ez hartzezkerotan!... Inoizko zimelkerien ordainetan, nonbait!... Eta nork gehiago?...

A. Md.- Nik dakidanik... (Atarian hotsa Andre Madalen jaiki bedi) Hara, hor dituzue mutikoak! Banoa ni.

Mant.- (Ataritik) Sartu, sartu, eder horiek! -Ederki eman ere!, ez jauna, ez: berori aurretik.

(Alkatea sar bedi, atzetik Manttoni duela, eta hurrena hiru mutil kozkor, seinatik bederatzina urtekoak. Bi zaharrenek begiak noranai dabizkie, ikusminez. Txikiena, negarra dariola.)

V.

LEHENGOAK, MANTTONI, ALKATEA

ETA HIRU MUTIKOAK.

(A. Madalenek, berehala alde).

- Alk.- Huxe duzue etxea, mutikoak. Andereño txintxo hauek hartu nahi izan zaituzte. Egun on, Madalen.
- A. Mad.- Jainkoak digula guzioi.
(Bihoa, irteterakoan ate-atean pitin baten gelditzen delarik. Mutikoak elkarri egotzita beude.)
- Pantx.- Ez beldurtu, eder horiek, ez beldurtu. Ikusiko duzue zein ederki egongo zareten hemen.
(Zaharrenari): Izena zer duk hik, maite?...
- Iñakik.- Mendiburutar Iñaki, andrea; donostiarra, eta berorren mirabe, zernahitarako.
- Pantx.- Alajaina!, ez dun hau oso tuntuna.
(Bigarrenari): Eta zuk?
- Xabier.- Ni naiz... Xabiertxo.
- Alk.- Alkortatar Xabiertxo. Aita itxasoan galdua du. Ama, sare-konpontzallea. Bestearena, oilo-saltzallea.
- Mant.- (Txikienari): Eta zu ttipitto, nor zaitugu?
(Haurra isilik) Hara!, katuak jan dio mingaina...
(Besteei): Mingainik badu, ala ez du?
- Iñak.- Bai, bai: izketan ondo daki orrek, gogoak ematen dionean.
- Mant.- Triste al hago, ba, gaixo hori? Amarengana

aurki joango haiz berriro, gizona.

Alk.-

Ez: ama hila du honek. Yontxu du izena.
Abizena..., ahaztu zait. (Paper batzuk sakeletik atera eta Pantxikeri daramazkio) Hara: guzien nondik-norakoak hortxe jartzen ditu garbiro. Ea, bada, Pantxike, Manttoni: nitaz behartzen bazarete, deitu, noiz-nahi. Eta zuek, mutikook... Baratzera pixkatean bidaliko bazenitukete, horixe onena.

Mant.-

Ederki esana. Hartaraxe etxe berriaz etsiko dute errazena.

Alk.-

(Maitero) Loreei pakean utzi behar zaie, gero!
(Bihoaz Iñaki eta Xabier, zalaparta bizian, baratzera. Yon, geldirik ate-aurrean. Oso da txikia. Besteengana ez ausartzen, baina pozik joango ote litzatakeela ere badirudi. Tarte luzean, besterik ez bedi entzun, bi zaharrenen oihu alaiak baizik. Pantxike'k berriro babarrun-otarrari bekio. Manttonik mantala erantzi, jantzi berriro, aulki hori honantzatu, lehengo tokiratu berehala Biek dirudite pittin bat beren onetik ateraraziak. Halako batean, mutikoen garrasi biziagoek ikaratzen dituzte.

Pantx.-

Ikus ezan non dabiltzan txerren horiek.

Mant.-

(Aterantz doala) E, e! Bihurriak, alaenak!
Hortik ez dela ibili behar! Harrapatzen badizutet atzealdea! (Urduri sartuz) Letxu tartean, makilka, Jaungoiko maitea!

(Bat-batean, txikiak laisterrari ekiten dio, besteekin jostatzera joan-beharrez. Baina,

Pantxikeren deihadarrak zakarki geldiarazten du):

Pantx.- Aizak, aizak, txepetx! Hator hi honantza, babarruna zuritzen laguntzera.

(Txikia betor Pantxikerengana, begiak lurrera dituela, eta exer bedi haren oinetan)

Mant.- (Berriro aterantz) Ea mutikoak. Zatozte pixkatean.(Berriro betor barnerantz) Non lo egin behar duten erakutsiko zienat.

Pantx.- Erakutsi iezaaien, bai.

(Iñaki betor aurrena, atzetik beste biak laisterka bizian.

Xabier.- (Arnas-estuka) ikusi al duk nolako urazak?

Iñak.- Haien buruak! Ez zaudekek txarrak, olio-ozpinetan.

Mant.- (Zain dagokie eta, behar bada berak nahi baino zakarkixeago, ala dietsa:) Begira gero, ez zaitzatedan nik harrapatu berriz nire letxueri ostikoka.

(Mutikoek burua makur. Manttoni eskuneko aterantz bihoa)

Zatozte, ea: zuen ohetokia erakutsi nahi dizutet: mandioan duzue.

(Bihoa. Bi mutiko zaharrenak atzetik. Zurubi estuan gorako hotsa Pantxike eta txikia bakarrik geldi bitez, biok babarrun-zuriketan).

Pantx.- Yontxu dut izena, beraz? (Muttikoak buruaz baiezkoa ozt-ozta, neskazaharrari begiratu gabe) Yontxu... eta, zer gehiago? (Mutila isilik.

Orduan, Pantxike, Alkateak emandako agiriei begira has bedi) Intxaustinekoa, ez da hala? (Buruaz, baiezkoa. Isilunea. Babarrun-zuriketa, eten-gabea. Pantxikek, astiro, goitik behera mutikoa azter beza) Eta norekin bizi haiz, ba, txiki? Amonatxoarekin? (Besteak ez erantzun) Izekorekin? (Buruaz, baiezkoa) Eta nolakoa da, ba, zuen etxea? Behiak ba al dituzue?...

Yontxu'k.-

(Burua jaso, eta, bat-batean atsoa harriarazten duelarik, haren mutur-muturrean parre-purrustak).

Ja, ja, ja! ... Hauxen da barregurea!... Behiak, alajaina, Donostiko kalean!!...



Lizardi emaztearekin, bi semeekin eta emaztearen amarekin, Zarautzen.

(OIALA)

BIGARREN EKITALDIA

LEHENGO TOKIA BERA. HILABETE GEROAGO.

I.

IÑAKI ETA XABIER.

(Iñaki ta Xabier, batak erratza eta besteak zarpil bat eskuan dituela, elkarren harrapazka dabilta, gela betean, barre eta garrasi eta zalaparta.)

Iñaki'k.-

Eeee! Ikutu haut! (Geldituz)

Xabier

Ez, jauna! Zapiarekin! Horrek ez dik balio.

Iñaki.-

(Berriro erasoaz) Ez du balio? Eta honek?

Xabier.-

(Itzul-eginik, isekaz) Eeee! Eeee! Harrapatu

ezetz! Harrapatu ezetz!

Iñaki.- Ezetz? Orain esango diat!

Xabier.- (Aulki baten gainera igo bedi) Koxka!

Iñaki.- Buru haundi arraioa!

Xabier.- Harrapatu al nauk?

Iñaki.- Jeitsi, gauza ba haiz...

Xabier.- Je, je!... Hori..., nahi badut!

(Iñakik zakarki eraso bekio. Xabierrek lurrera jauzi egin beza. Berehala, berebiziko zalapartaz, lehen baino areago, ekin bekie elkar hatzi-beharka. Aulkiak hankaz gora, mahaia iraulita, ontzi, ogi-otar eta abar lurrera-bidean...

Bat-batean, haizeko ate-zuloan, Manttoni ager bedi. Ikaratuta geldituko da.

Iñaki'k orduan, bere zarpila jaso, eta mahai iraulia sendoro igurtzi beza. Xabierrek, arnas-estuka, erratza berriro eskuratuz, bazterrak garbi bitza)

II.

LEHENGOAK ETA MANTTONI.

Mant.- (Ia, hitz egiteko ere gauza ez dela.) Nire Jaungoiko maitea!!... Baina..., baina..., baina..., !!!... (Hitzik ezin, eta isil isilik has bedi, aulkiak, ontziak, mahaia eta abar jaso eta bere toki-ratzen. Guzua oso zuzendu artean, ez zaio arnasa bere onera itzuliko.) Hauek etsaiak, Jauna!... Baina, egunero-egunero, deabruarena egiten

- arkitu behar ote zaituztet?... Non da Pantxike?...
- Iñaki.- (Manttoniren ahotsa barregarriro berdinkatuz)
Nongo Pantxike gero, andrea?...
- Mant.- Hara... zera...! Pailazo motela, ez besterena!...
(Xabierei) Non da Pantxike?...
- Xabier.- (Besteak bezalatsu) Andre Pantxike, beraz?
- Iñaki.- (Burua nahastu beharreko garrasiez) Oiloetara
joan da! Oiloetara joan da! Oiloetara joan da!
(Mutil biok, elkarri eskutik heldu, eta garrasika
ekin bekiote neskazahar gaixoaren inguruka.)
- Biak.- Oiloetara joan dala! Oiloetara joan dala!...
- Mant.- Baina..., Jesus, ene! Isilduko al zarete, gogaika-
rri alaeenok? Behin esanda ere: "oiloetara joan
da"; ez al da nahikoa?
- Iñaki.- Jee, je, je! Oiloetara..?. bai zera!... Ez, ez, ez!
Txanbra berria jantzita alde egin du...
- Xabier.- Setazko txanbra! Paparra agirian duela!...
- Mant.- Hago isilik, lotsagabea...
- Iñaki.- Ezta, ezta, ezta!... Gezurra hori ere! Ja, ja, ja!.
- Xabier.- Egia, egia! Donostiako Alkatea omen datorkigu
etxera...
- Iñaki.- Iaufiii!... Hau duk umorea!
- Mant.- Donostiako Alkatea? Nork esan dizue hori?
- Iñaki.- Petratrixok esan digu, Petratrixok.
- Xabier.- Petra begi-okerrak, andretxo!
- Mant.- Donostiako alkatea gurera! Ederki eman ere...!

Petratxoren asmabeharrak... Guretzako dago
Donostiako Alkate jauna! Hobe bai, egia
balitz!... Baina, horiek horrela direla, ba al daki-
zue zer egingo duzuen orain, txintxo-txintxo?
Patata mordoska bat baratzatik ekarri... Aguro,
ordea!.

(Iñaki ta Xabier laisterka bihoaz, atzeko atetik)

Iñaki.- (Burua berriro azalduz) Hara, hara!... Azaldu
da, azaldu da!

Mant.- Nor azaldu, gero?

Iñaki.- (Garrasi bizika) Pantxike azaldu da: gure
Pantxike!

(Iñaki berriro ezkuta bedi. Geroxeago Pantxike
dator.)

III.

MANTTONI ETA PANTXIKE.

Mant.- Nondik hator, enetxoa?

Pantx.- Oiloetatik. Nondik etortzea nahi dun?

Mant.- Oiloetan hintzen, beraz...

Pantx.- Yontxu etorri al da?

Mant.- Non dun, ba?

Pantx.- Erosketan. Baina, hark ez din behinere presarik.
Hain toki txikian horrelako gibel haundia ezku-
tatu litekeenik ere! Buruak ematen diona beste-
besterik ez din egiten...

- Mant.- Hark, hori? Eta besteok, zer egiten dinате, ba?... Hemengo iskanbila eta iraulketa ikusi izan bahitunan, arestian!
- Pantx.- Zorarazi behar gaitizten.
- Mant.- Guzia lurrean, hankaz gora: mahaia, aulkiak, ontziak... Deguntxoа porrokatu behar zigunate azkenerako!
- Pantx.- (Aulki bat aztertuz) Izan ere, iraun behar din honek, holako txerrenekin?
- Mant.- Gaiztakeriak bakarrik poz-ematen zionate. Eta, ateraldi batzuk badizkinate gero! Halakoak nondik datozkien ere!
- Pantx.- Donoxtiarren malizia dun hori...
- Mant.- Donostiar kaxkarinkeria!...
- Pantx.- Guk ez bezala, zenbaitek honezkero burua galdu zinan.
(Berriro, ataritik, mutilen jolas-hotsa. Lehen bezala)
- Ataritik.- (E, eee! Harrapatu haut. Ez, jauna -Buruhandia, ez besterena!- Hator, hator, Pinto!...)
(Gero, hots hori osten bedi, urrutiratzuz.)
- Mant.- (Neka-neka eginda) Ai ahizpa... Burua nik baino sendoxeago behar din, bizimodu honetarako...
- Pantx.- Bai nik baino ere. Honela jarraituz gero, aurki naun Santa Agedan
- Mant.- Eta noiz aldegin behar duenik ere?... Ez al din

inork ezer adierazi?...

Pantx.- Atzo, alkateak... Aurki etorriko ahal zaizkie bila, baina noizik ez jakin.

Mant.- Hilabete bihar dinате.

Pantx.- Ezin esango dinagu ezer, egunekoa ordaintzen duten bitartean...

Mant.- Egunekoa ordaindu! A, gaixoa!: berriro egin beharreko tratua bagenu!...

Pantx.- Utzion horri, osasuna eta pakea galtzen ez ba dizkigute betiko!...

Mant.- Odol gaiztorik ordaintzen al dinате ba, duro zikin horrekin?

Pantx.- Bai: eraman ditzatela lehenbailehen. Honela ez zagon gauza onik?

Mant.- (Hormei ikarez begiratzen diela) Etxeak ez liken zutik iraungo beste hilabetean.

Pantx.- Buruari eraginez, mahai-aldera bihoa, arkatza-ren eta paper-punta baten eske. Betor berriro eseritzera, eta bere baitan ari balitz bezala:) ... Hiru bosteko, hamabost... (Ahizpari) Zer gastatu huen atzo?

Mant.- Nikolaxarenean, hiru laurleko...

Pant.- Ai, Jaungoiko maitea!... Hiru bosteko, hama-bost... Hamabosti hiru kendu eta... Hamabosti hiru...

Mant.- Ogitan, bi laurleko... Jarri al dun?... Hamabiri bi kendu eta... A, eta... Atzo, igande, haragia ere bageninan: lau laurleko... Olioа, bi... Zenbat

gelditzen zain?

Pantx.- Hamarri sei kenduta... (Isilunea) Eta azukrea?...
Eta kafea?... -(Zenbaketak buruz eginik)
Zera...!, gerenetik jarri beharra, gainean...

Mant.- (Bertaratuz) Benetan, gerenetik har gaitun?...

Pantx.- Ea..., erorrek ikus: hamasei laurleko eta lau txakur haundi...

Mant.- Hamasei eta... Ene, ene!... Elorrioa zaukanagu, alajainena!...

Pantx.- Eta, adi ezan.. Hori oiloen eta txerriaren jana sartu gabe... Kontu garbia eginenean, horiek ere barruan behar lieken!

Mant.- Nik hala uste, ahizpatxo: nik ala uste!... Hauxe da lana, enetxoak!
(Ingiari begira geldi bitez, buru makurka.
Bitartean, atzeko atetik betor Yontxu, zorroz eta pardelez besoak eten beharrean.)

IV.

LEHENGOAK ETA YONTXU.

Pantx.- (Ingia ezkutatuz) Hor gure gizona!

Mant.- Hala ere! Bahator? Txoritan ibili al haiz, ala zertan?

(Yontxuk begiratu bat begio, erantzun gabe.)

Pantx.- Lasaia, ez bestelakoa! Ordu bete behar al duk kaletik etxera? Alderdi ederreko langilea hago, hire eskuz bizi izaterako!

- Mant.- Lotsatu ere ez aiz egiten, lotsatu..., arlote haundi hori?
- (Yontxuk, txintik ez: ekarri guziak utz bitza mahai gainean, eta bi atsoei erakutsi bezakie atzealdea.)
- Pantx.- (Berriro aurpegiz itzularazten duela) A, baina, txotxo..., hori guzia horrela uzteko asmoa al duk? Alajaina...! Atera niri berehala bildu horietako puskak, eta zein bere tokian ipini... Bizkor, gero!... (Ahizpari) Ikusten al dun!...
- (Yontxu, bilduak hustu ta guzia txukun jaso ahala, axolagabekeriaz hasi bedi txistu-joka.)
- Eeee? Txistu-hotsak, gainera? (Besteak ez entzuna) Aditzen al duk, bai ala ez?... Donostiar koxkeroen kanta jator bat da hau: "Joxe Migelen batela"!
- (Ahizpak, elkarri begira, zer esan ez dakitela)
- Mant.- (Isilune baten ondotik) Ohea egin al duk, txepetx?
- Yontxu.- Ez.
- Mant.- Ohea ba, aguro!... Aidean, esan diat!...
- (Yontxuk buka beza lehengo lana, eta astiro abia bedi eskuinerantz.)
- Zer egin behar dun hik, Pantxike?
- Pantx.- Ahuntza ateratzera noan.
- Mant.- (Yontxuri) Inor etorriko balitz, Pantxike ahuntza larrarazten dela, eta ni berriz, kalean: aditzen?

(Bihoa Yontxu.) (Isilunea)

V.

MANTTONI ETA PANTXIKE.

- Mant.- Doloretako Ama! Noizbait ere eramango ahal zizkigunan! Jakin dezagun baiezkoa ala ezezkoa.
- Pantx.- Bakea har dezagun, zer dun gero hau!
- Mant.- Eta kakalardo horren ateraldiak entzun al ditun?
- Pantx.- Entzun!... Iarra adinakoa ez dun-eta, horren gizondu beharra!...
- Mant.- Umekondo zelebrea! Besterik horrelako ez dinat egundaino ikusi.
- Pantx.- Ez-eta "Potxolo"nekoa ere...
- Mant.- Ez-eta "Potxolo"nekoa ere...
- (Bihoaz, atzeko atetik, Antzeztokia puxka batean hutsik.)
- (Urrutiratuz, haien oski-hotsa. Gero, atzeko atetik, Iñakik eta Xabierrek muturra erakuts bezate.)

VI.

IÑAKI, XABIER ETA YONTXU.

- Iñaki.- (Hots itoaz) Ieeup! Yontxu!...
- (Iñaki eta Xabier sar bitez geldiro eta isilka.)
- Yontxu.- (Bere aldetik muturra azalduaz) A!, Zuek al zarete?
- (Sar bedi berehala antzeztokian.)

- Iñaki.- Usain egiok, arren, sagar honi, kakalardotxo...
- Yontxu.- (Begiak haundi-haundi) Uiii!... Nor atxitu duzue?
- Xabier.- Sortutako tokian, gizona: zuhaitzean! Andre Manttonik goizero begietan zuen huraxe duk...
- Iñaki.- Har ezak, gixonerdi: hiretzako zekarkiagu. Gu, aurretik ordainak jasota gaudek.
(Yontxuk sagarra har beza)
- Xabier.- Manttonik hartu behar duen bihotzondokoa!
- Iñaki.- A, zer nolako aurpegi-luzatzea, harena!
- Yontxu.- Jontxo! Ederra zegok!
- Iñaki.- Arraio tripazaia! Andre Manttoni gajoari baino probetxu hobia egingo al dik...
- Xabier.- Gogoratzen al zaik, pastela jan genionean?...
- Iñaki.- Demonio, tuntuna hi berriz! Katuak jan zian eta!
(Guziek barre-algara)
- Yontxu.- Hori katu bihurria, etxe honetakoa!, eee?...
- Xabier.- Arraio berriak! Gure atsoen aurrean ez duk izaten horrelako etorria...
- Iñaki.- Je, je, je! Izan ere, hori aurpegia ekarri du giza-rajo honek, arestian! Bazirudian praile sartu behar zuela... Ea, esaiguk, esan: zer egin ziotek etxekoandreei?
- Yontxu.- Hutsa... Berandutxo etorri kaletik.
- Iñaki.- Eta nora aldegin diate bi sorgin horiek?

- Yontxu.- Pantxikek, ahuntza ateratzera; Manttonik, kale-
ra.
- Iñaki.- I, Xabier: ez al zaik iruditzen guk lehen asmatu-
tako ipuinak darabilkiela andre Manttoni?
- Yontxu.- Zer ipuin, zer ipuin?
- Iñaki.- Hara, esango diat.
(Elkarren hurbil bitez)
- Xabier.- Gogoan al duk hik, noiz ezkeru gauden etxe
honetan?
- Iñaki.- Utzi orain, honi esan arte... (Bat-batean atzera
begira beza, urduri) E! Ixo! Bazetozek.

(Hitza baino arinago osten bitez: Xabier, atzeko
atetik, horma-hormari itsatsita; Iñakik leihotik
jauzka egin beza; Yontxu, eskuinetik. Berehala,
atarian, ahizpa bien ahotsa, eta, tarteka, bi gizo-
nezkoena.

Sar bitez, herriko eta Donostiako alkateak,
Pantxike eta Manttoni.)

VII.

HERRIKO ETA DONOSTIAKO ALKATEAK, MANTTONI ETA PANTXIKE.

- Pantx.- Lotsa-lotsa eginda gatoz, Alkate jauna
(Donostiakoari) Gure etxe apal honetara beurok
bezalako haundikiak etortzerik...
- Mant.- Etortzea asmatzerik ere..., egundo!
- D'ko. A.- Beraz, hiru umezurtz ibili dituzte andre agurga-
rri hauek?

- Erriko A.- Hiru, jauna, hiru: Mendiburutar Iñakitxo,
Alkortatar Xabier, ta bestea, zera...
- D'ko A.- (Entzuten ez dioelarik) Eta, agi denez, etxeko-
andre begikook, langile horrek ez dizue eman
poz haundirik...
- Mant.- (Indar haundirik gabe) Oi!, gu oso pozik ginen,
Alkate jauna, oso pozik...
- Pantx.- Bai; egia esan, gu txoratzen egon gara.
Lehenbaitlehen aldegin dezaten eskatzea, gure
adinaren nekearengatik izan da.
- Mant.- Nekearengatik, jauna: ez baitugu ohiturarik...
- Pantx.- Hori, hori: ez baitugu ohiturarik... Izan ere,
hemengo iskanbilak, hemengo iraulbearra!...
- Mant.- Eta esango bagenuke, alegia, osasunak aldi
luzexeagoa eskatzen ziela...Orduan ez legoke
zer esanik. Baina, ikusiko dituzue, ikusiko!
- Pantx.- Oso daude onik: borobildu dira poliki!.
- D'ko. A. Ez, eta, bidezkoa da, gainera: hobeto ibili dire-
nak lehenago alde egitea. Gure diruak ere urrit-
zen doaz, gero!... Baina, zuek, hainbeste nekeen
ordainez, haur horien alde egindakoa, benetan
aipagarria da. Ez al da hala, Alkate jauna?
- Erriko A.- Bai noski. Hamaika bider entzun didate.
- D'ko. A.- Nik ere, inor bidali baino, neronek etorri nahia-
go izan dut, haurrok jasoaz bat, zuei, nire eta
Donostiako Udalaren izenean, eskerrik beroe-
nak erakustera...
- (Alkatea eta ahizpa biak erne-erne dagozkio,

haren hitz guziei agurka eta baiezkia).

Herriko alkate jaun agurgarriari lehentxeago eman diot zuentzat idazkitxo bat. Bigarren hamabostekoaren ordaina.

Erriko A.-

(Pantxikeri idazki txiki bat luzatuz) Hortxe dago dena, xuxen-xuxen, ustez: ikustazu. Hamabost egunekoa ez ezik, hamaseikoa ere badago. Dagonilak hogeita hamaika ohi dituenik, ahaztu niri, alajaina! Hogeita hamaika eskutik eta jokoa galdu? (Kar-kar-kar barre eginez) Zer deritzozu, adiskide ona?

(Atzeko atetik, Iñakik eta Xabierrek, lotsa-ant-xean, sudurra azaldu bezate).

VIII.

LEHENGOAK, IÑAKI TA XABIER.

BEREHALA YONTXU.

Mant.-

Hara, hortxe dituzue gure poxpolin gaixoak... Sar zaitezte, sar maiteok!.

Pantx.-

Etorri, beldurrik gabe, gure bildotxok... Ikusi hemen Donostiako Alkate jauna, zuek jasotzera etorria.

(Iñaki ta Xabier sar bitez.)

D'ko A.-

(Begiratu ere gabe) Bai, benetan, guri-guri egin dituzue. Gertu ditzateke berehala beren pardeltxoak. (Mutikoei begiratzuz) Baina, hiru ez zenituzten bada?

Mant.-

Bai jauna, bai. Txikiena hor barruan dabil. (Eskuineko atea zabalduz) Eup, Yontxu, hator,

bihotza, ator!... (Berriro erdira etorriz) Gixaxoa!
Amarik ez du. Ezagun ere bazuen, etorri zene-
an, dena zikinak jana...

Iñaki.- (Ahopeka Yontxuri) Bagoazek hemendik ospa,
hi...!

D'ko. A.- Hator honantza, txiki. Eta hirurok txintxo-txintxo
entzun iezaazue. Negarrik ez egin, gero?
Andre on hauekin oporraldi ederra botea duzue.
Orain, zuen etxeetara itzuli-garaia etorri da. A
zer nolako gertaldi politak izango dituzuen,
etxekoei ta laguntxoei esateko! Ez al da hala?
(Besteei) ikusten dituzue? Geldi-geldirik; erne-
erne?... Hiru gizontxo diruditela? Hauek dira
benetan mutiko txintxoak! Guziak horrelakoak
izan bagenitu, ez al da egia, Alkate jauna?
(Mutikoei berriro) Ea, bada: zoazte orain gertut-
zera. Luzaroko lana izanez gero, gu joan gaitez-
ke, eta zuek (ahizpei) Udaletxera ekarriko ditu-
zue...

Iñaki.- (Bixi-bixi) Ez, ez, berehala bilduko dugu guzia.
(Beste biei) Goazemak axkar, mutilak!.

(Zalaparta bizian bihoaz eskuinaldetik.
Zurubian gorako iskanbila entzun bedi puska
batean, hurrengo hitzen tarteka).

IX.

MUTIKOAK EZ GAINERAKOAK.

D'ko. A.- Txerren horiek nahiko lan emango zizuten, bai
sinisten dut...

Mant.- Nahiko lan... Hara, jauna, egia esango badut,

bai: nahiko lan, eskua bete lan, eman digute.
Baina, ez al genuen horrenbeste eraman behar
gixagaxoengatik?... Ez irabaziarengatik, sinistu
beza: kontu garbia egitez gero, garetetik aritu
gara...

Pantx.- Egia huts-hutsa: ikusi beza bestela. (Ingi bat
luza bekio: lehentxeago kontuak ateratzen ari
izan direnekoa)

D'ko. A.- (Begiratu gabe papera itzuliz) Andre gaxoak,
andre gaxoak! Nola, behar bezala, eskerrak
eman zuei, hainbesteko ongina ta nekeen
ordainez?

Pantx.- (Lehengoari jarraituz) Esan bezala: ogia, esnea,
ikatz, babarruna, olio..., horiek guziak ordain-
duz gero, zenbat gelditzen da? Eta, ez dago!
noizean behin, okela ere eman behar zitzaien.
Iturriko ur garbiez ez dira, gero, morrosko
horiek hazitzen! Eta, sinistu beza, jauna: herri
honetan, mardultxoenetakoak gureak aterako
dira, eta hori gu baino aberatsagorik hainbeste
dagoela...

Mant.- Haurrik artu nahi izan ez dutenak gogoratu
bakoitzean!... Erretzen jartzen naiz gero!...
Arbidenekoak eta..., Begierrenekoak, eta...; zer
deritzo, Alkate jauna?... Eta... zuk eta nik daki-
gun beste hura, hiru etxeren ta nik al dakit zen-
bat soroen jabe den hura!

(Herriko Alkatea urduritzen hasi da. Burua
astintzen du, eta begiak honantz-harantz darabiltza)

- D'ko. A.- (Manttoniren etorria ebakiz) Tira, ba! Zer egin-go zaio? (Eskuak igurtziz) Guretzako poz haundia da, behintzat, zuek bezalako kristau errukiorrak ezagutu ahal izatea. Ez al da hala, Alkate jauna?...
- Erriko A.- Bai, ene adiskide, bai: jende zintzorik ere badugu herrian!
- (Mandio-aldean gero ta zarata haundiagoa. Behekoak noizik behin burua habera jaso bezate, urduri.)
- D'ko A.- (Ahobeteka) Nire adiskidea, donostiar-kume horiek herri txiki honetan oporraldi egitea, gizartearekiko garrantzi haundikoa da. Ez bakarrik osasunari buruz. Hori ere ez da, noski, bazterrean uztekoa. Baina, beti ere, badakizu: uri buruaren eta gainontzeko herrien artean, halako elkar-gabea, halako ezinikusi sorra izaten da. Urtero, guk aurten bezala, elkarbidea emaniezaziezu: aste bete batzuk elkarrekin igaro ditzatela, alegia; eta orduan, elkar-ezaguera badator, badator, poliki-poliki... Orduan, guzien berdintasuna, guzien anaitasuna, askoz ere bertago ikusten dira... Zer gauza ederragorik, nekazari zintzo hauen besoetan gure ola-langileen semeak ikustea baino?... Gizartearen berdintasuna, gizartearen anaitasuna! A, etxekoandre agurgarriak! Asmo haundi horien alde, inork uste baino lan bikainagoa egin duzute hilabete honetan!...
- Mant.- (Zer esan ez dakiela.) Bai, jaun, bai... Hala uste dugu, behintzat...

(Hiru mutikoak eskuinaldetik sar bitez, beren bilduak eskuan dituztela)

X.

LEHENGOAK, ETA HIRU MUTIKOAK BERRIRO.

- Pantx.- Gauza guziak jaso al dituzue?
- Iñaki.- Bai, andrea, bai.
- Mant.- Ez al da hobe izango, nik, gora joan-etorri bat egitea?
- Xabier.- Ez zaigu ezertxo ere ahaztu!
- Mant.- (Gorantz doala) Ezetz?... Harrigarria litzateke horratik!
- Pantx.- (Mutikoei) Nahaspil ederrik izango da hor goian...
- Iñaki.- Bai, zera, poliki-poliki ibili gara eta!... Dena txukun..., (Xabierri zalantzez begiratzuz) txukun samar... utzi dugu.
- D'ko. A.- Nai baduzue, gero, mutikoak ordu-erdi baterako hemen uztea...
- Pantx.- Zertarako, jauna?... Hori gorabehera! Moldatuko gera Manttoni eta ni...
- Mant.- (Sartuz) Hara, hara! Banekien nik! Norena duzue alkandora zikin hau?
- Iñaki.- Ez da nirea.
- Xabier.- Ez nirea ere.
- Mant.- Hirea duk, beraz, Yontxu? (Lotua askatzen diola) Gaxoa! Nola lotu duk pardel hau hain estu?

- D'ko. A.- Tira maiteok. Etxekoandre maitagarri hauei agur esaiezuee, eta eskerrikasko.
- Iñ. Ta Xab.- (Atso bien lepora jauzi eginez, alaiki eta maitetz) Agur, andre Pantxike... Ikusi arte, andre Manttoni... (Yontxu ere, besteon lehian, zarataka hasten da: hirurok batera hitz egin bezate) Askogogoratuko gara zuetaz! Idatziko dizuegu noizean behin... Donostiara etorriko, gu ikustera?... Oiloen berri guri bidaliko? ... Eskerrikasko, andre Pantxike... Mila esker, andre Manttoni... Agur, agur, agur... Ikusi arte... Datorren urtean, berri... Idatzi, gero!... Agur... Agur!...
- Pantx.- Baina, gizontxoak, isilduko zarete?... Hara, Donostiako Alkate jauna itxoiten dagozue.
- Mant.- Trenean txintxo joan, gero!...
- Pantx.- Burua leihotik atera gabe!...
- Mant.- Esanak txuxen eginez...
- Pantx.- Zerbait ahaztu bazaizue, bidaliko dizuegu.
- Mant.- Bai: berehalaxe bidaliko...
- D'ko. A.- Agur, bada, andre begiragarriak: ikusi arte.
- Pantx.- Lagunduko diegu bideraino.
- Erriko A.- Zatozte axkar, mutikook!...
- Irurok.- (Garrasika, pardelak bizkarrean dituztela) Iauffaaa, bagoaz...! Iauffaaa, bagoaz!, Iauffaaa, bagoaz!... Donostiara!... Donosti ederrera!... Kaletan ikuiluak eta behiak ikustera!!
- Iñaki'ren otsa.- Hara! ikusten al duk Yontxu, negarrez?...

Mant.- (Irtenaz) Negarrez!... Zeri negar, nire Yontxu?

Pantx.- (Donostiako alkateari, irteterakoan) Jauna, gaur-ko eguna bezalakorik, sinistu beza, hogeitamar urte biok bakarrik bizi garela, eta...

(Esaldi horren azkena gal bedi. Herriko Alkatea irten bedi azkena. Ahots-zarata nahasia: mutikoen nagusi. Urrutixego, kantari hasi dira. Guzia mailka-mailka isiltzen.)

XI.

PANTXIKE TA MANTTONI.

(Ahizpa biak itzuli datoz. Aretoan, batetik bestera, noragabeki, bebiltza, zerbait lani eskua ezarri nahika bezala. Pantxikek azkenik, ez-arian bezala, Alkateak emandako idazkia urratu beza.)

Mant.- (Zerbait esan behar eta...) Donostiako Alkateak izena nola duen ere?...

Pantx.- Manterola, uste dinat...

Mant.- Zuria dun, ala beltza?...

Pantx.- Erretore jaunak dionez, zuri samarra...
(Isilunea)

Mant.- Oraingoan bakea dinagu, Pantxike...

Pantx.- Bai... Noiz edo noiz, horratik... Bakea!

Mant.- Hau etxearen isiltasuna! Ahaztu ere egin zitzaidanan, lehen hala zenik...

Pantx.- Oraintxe atseden pixkabat har zezakenagu.

- Mant.- Egia, Pantxike, egia...
(Isillunea. Gero, Pantxike aterantz bihoa)
- Mant.- Nora hoa?
- Pantx.- Atea ixtera, Manttoni.
(Manttoni atzetik dihoakio, eta biak pixka batean geldituz, atarira begira.)
- Mant.- Goialde hori ere txukundu beharko dinagu, bada...
- Pantx.- Bai: ikusgarria egongo dun.
- Mant.- Guzia azpikoz gora..., oheak egin gabe...
- Pantx.- Jesus, mila bider!
(Isilunea)
- Mant.- (Ikaraldi) Pantxike!
- Pantx.- Zer dun?
- Mant.- Ez al dun ezer entzun?
- Pantx.- Hik bai, Manttoni?
- Mant.- (Bihoa leihora) Ez... Haizea zunan, noski...
(Isilune luzea. Belarriak zutik daude: ezer ez da entzuten. Manttoni itzuli dator berriro)
- Pantx.- (Sorbaldak uzkituz) Irudipenak.
- Mant.- Oraintxe, eulia ere suma liteken hegaka...
- Pantx.- (Alabeharrez bezala, zerbait antolatzen doa, baina bat-batean itzul bedi.) Zergatik dion hori?
- Mant.- (Ametsetan bezala) Ezer esan al dinat?
(Isilunea berriro. Bat-batean, atea zabaltzen da.

Ahizpa biak batera itzuli dira, hotsak ikaraturik.
Andre Madalen sartzen da.)

XII.

LEHENGOAK ETA ANDRE MADALEN.

- Pantx.- (Gogait-antzean) Aaa!... Madalen dun...
- A. Mad.- (Harrituta) Oiii...! Zer duzue?
- Mant.- Ezer ez. Zer izatea nai duzu?
- A. Mad.- Ikaratu egin zaretela esango nuke...
- Pantx.- Nola ez ba?... Atea horrela zabalduz gero, hildakoa ere zutituko litzateke!
- Mant.- Garai honetan ez zara etorri ohi, eta... horrexek egin digu.
- A. Mad.- Etxeberrira nindoan, bada, eta zuen aurretik igarotzerakoan: "sartu-atera bat egin dezadan": egin diot nire buruari. Agi danez, mutikoak eraman dizkizute...?
- Pantx.- Badakizu dagoneko?
- A. Mad.- Ikusi egin baititut, honantza nentorrela. Ez zera-maten negargura haundirik. Garrasi bizian, txoro batzuk bezala, kantari zihoazen...
- Mant.- Benetan? (Isilunea) Txikia ere bai?
- A. Mad.- Bai: txikia ere, besteak bezalaxe.
- Pantx.- Txikia ere bai!
- A. Mad.- (Inguru-begika) A zer nolako hutsunea, hemen-dik aurrera!...
- Pantx.- (Bere burua indarbehartuz) Bakea, bakea galan-

- ta, Madalen...
- Mant.- Horixe bai!
- Pantx.- Lehen, izerdi bizitan goizetik gauera, mutil kozkor hoiek zirela-eta.
- Mant.- Eta otorduak bostentzako, biontzako ordeztu!...
- Pantx.- Eta etxe guzia azpikoz gora...
- Mant.- Lokatza eta zikina non-nahi...
- Pant.- Bazeneki..., zer kalte egin diguten!
- Mant.- Aulkiak porrokatu...
- Pantx.- Katiluak hautsi...
- Mant.- Eta, lotarakoan, berebiziko iskanbila...
Bederatziak bitarteraino ere, inoiz!
- Pantx.- Bederatzi-hamarrek arteraino...
- Mant.- Eta, lanean, ez gero uste asko laguntzen zutenik...
- Pantx.- Patata-ateratzera eta babarrun-zuritzea, ozta-ozta...
- Mant.- Gero, borroka gorrian ari zenitun beti...
- Pantx.- Borroka gorrian beti, bi zaharrenak batez ere...
- Mant.- Haien zarataz, elkarri ezin entzunez egoten ginen askotan.
- Pantx.- Iskanbila bizia, goizetik gauera!
- Mant.- Gelditu gabe, ordea!
- Pantx.- Belarriak gortu beharrekoa!
- Mant.- Iskanbila..., iskanbila..., nolakoa gero?

- Pantx.- (Zoratu balitzaio bezaa) Iskanbila..., iskanbila...,
(Bat-batean, isildu bitez. Isilune astuna)
- A. Madal.- (Haien etorria eten ezinik aritu ondoren) Tira bada! Guziak du munduan azkena. Oraingoan, bake ederra irabazirik zaudete. Hala hobe. Poztutzen naiz... Agur gaurkoz, enetxoak: banaoa.
- Mant.- Etorri, gero, hurrena ere, Madalen?...
- A. Mad.- Gaur, honezkero, ezin. Senarra gero eta makalago daukat. Baina, bihar, eguerdi artean...
- Pantx.- Etorri, bada, bihar eguerdi aldera...
- Mant.- Eta, bestela, gu joango gatzaizu, ikustera.
- Pantx.- Baita, baita: gu joango gatzaizu...
- A. Mad.- Ederki; zain egongo nauzue. Eta esango didazue, gaur, afaitarako, mahaia ez al duzuen hutsegi aurkitu...
- Mant.- Hutsegi? Oi! Zergatik?
- Pantx.- Hutsegi? Horiek ateraldiak, Madalen!
- A. Mad.- (Irteterakoan) Nik baibaitakit gauza horien berri. Etxean sei haur izan ditugu. Hiru, hil egin ziren. Beste hirurak, ezkondu. Eta, orain, orain... Baina, utz dezagun... Hobe da. Bihar arte, beraz.(Bihoa.)

XIII.

PANTXIKE ETA MANTTONI.

(Ahizpak lelotuta gelditu dira ate-aurrean. Bat-batean, haizealdi zakar batek mahai-gaineko paperak sakabanatuko ditu.)

Mant.- (Burua itzuliz) Zer zeraman haizeak?

Pantx.- Haizeak zer daraman?

Mant.- A!... Dirua dun, noski.

Pantx.- Izan ere: dirua. (Begira biezaio, eskurik luzatu gabe) Jaso ezan, Manttoni...

Mant.- Jaso ezan erorrek.

(Leihora joan, eta itxi bezate. Pantxikek dirua jaso, eta utzi beza lehen bezala, maha gainean. Manttonik itzuli datorrela, itzalgaizka, begiak lehortzera egin du.)

Zenbatu ere egin beharko dinagu, bada, diru hori...

Pantx.- (Urrutitik bezela) Zenbatu dezagun, bai...

(Bata bestearen aldamenka, antzerki hasieran bezala, jarri dira; baina dirua eskukatzen dihardute, zenbatu beharrean. Halako batean, Pantxike'k ere begiak lehortzen ditu.

Mant.- (Ahizpari zorrotz begiratuaz) Zer dun, Pantxike?

Pantx.- (Bere onera itzuliz.) Zer..., zer..., Zer dio?...

Mant.- Zera..., hutsa... Iruditu... egin zaidan...

(Hotsa, eztarrian, ito, egiten zaio. Dirua zenbatu naihan hasten da.)


Pantx.- (Lehen Manttonik bezala begiratuz) Zer darabilkin gogoan, Manttoni?

Mant.- (Lotsakor) Nik?... Hutsa, hutsa... Ezer ez... (Isilunea) Eta hik, Pantxike?

Pantx.- (Berdin) Hutsa... Hutsa, Manttoni!...
(Ekin biezaiote orain, bero-bero, diru-zenbatzeari)

(OIHALA BEHERA, ASTIRO).

OHARRA Emakumezko hutsentzat erraz tajutu liteke.
Herriko eta Donostiako alakateak bihur litezke,
esate baterako, EABko Lehendakari; eta hari
horretara ikutu, aldatu beharrak liratekeen esaldiak.



Zarautzko ondartzu. (Lizardiren garaian).

LEHENENGO EKITALDIA

Antzeztokia: jangela txukuna.

I.

MIREN eta ARANTXA.

(Biak josten; alabatxoa aulki txiki batean.)

- Miren Ez al dun jolasera joan behar?... Hire ahizpek aspaldi utzi ziotenan lanari...
- Arantxa Ertz hau bukatu artean ez behintzat... Hauxe biharko ez uztea ipini zait hemen. (Behatza bekokian jarririk).
- Miren (Barrez eta alaba maitero laztanduz). Ai nolako etxekoandre egokia daukadan nik etxean!... (Bat-batez bendu, eta arpegi itzalez, gora begira gelditzen da).
- Arantxa (Urduri). Amatxo... negar? (Mirenek laisterka malko bi lehortuta, josten darrai, ez erantzuteko tankeraz. Arantxa jeiki, eta besoak amari lepoan ezarriaz). Zer duzu, ama? Niri esango ez?...
- Miren (Isilunea; gero bere arterako bezela). Nire haur guziek hik bezala laztanduko banindiketenan!... Hiri beste axola balitzaizkie nire malkoak!... (Berriro negarra lehortuz).
- Arantxa Zer diozu, amatxo?... Ez al zaitugu ba guziok maite?
- Miren Ez zekinat!...
- Arantxa Nork laztantzen ez zaitu?
- Miren Nork... nork! (Pixka batean isilik egonda).

- Yonek, maite!
- Arantxa Hara berriz!... Hori da ba!... Amatxo: gizon haundia baita! Ja, ja, ja! Polita litzateke! (Benduz) Baina... maite gaitu, ama. Berak ere badaki laztantzen.
- Miren (Garratz xamar). Bai. Norbait laztantzen din, noski...!
- Arantxa Horra ba... Zu ez... lotsatu egiten delako edo. Baina... norbait... norbait... (Iribarrez eta begi-keinuka) Bai al dakizu nor, ama?...
- Miren (Kezkaz, alabari begi-begietan begiratuz) Nor?
- Arantxa (Harro-harro) Ni!
- Miren (Harrituta) Hi?
- Arantxa Esango dizut, ama. (Aulkia aurreratuz) Baina! Behatza ezpainetan ipinirik)
- Miren Bai, emakumea.
- Arantxa Ba, lehengo batean, amona ikustetik etorrita...
- Miren (Garratz) Bai; amona ikustetik!...
- Arantxa Zer?...
- Miren Ezer ez. Jarrai ezan, maite...
- Arantxa Ez, ez, ez! Zergatik esan duzu: “ Bai, amona ikustetik” haserre bezala?... (Mirenek ez dio erantzuten) Eee?... Esan nahi ez niri?... Nik ere ez ba zuri, horratx! (Aulkia aldenduz).
- Miren (Barrez) Tira, tira, pertxenta!...
- Arantxa Yon amonarengana joatea ez al duzu nahi?...

- Miren Bai, ume, bai... Nahiko ez dinat ba?... Tira, esan; nire maitea haiz-eta...
- Arantxa (Aulkia berriro urreratuz) Ba... Horrelaxe... amona ikustetik etorri zen batean, hementxe nire aldamenean eseri, eta... oso ilun zegoen... Nik begi zeharka begiratzen nion noizean behin, baina bera ez zen ohartu ere egiten, geldi-geldirik leihotik sartzen zen eguzkiari begira... Nire artean egiten nuen: “Zer ote du?” Eta, halako batean, non ikusten dizkiot begietan bi malko lodi-lodi!... Hura barregurea eman zidan Yon negarrez ikusteak!... Esan nion: “Eeee, Eeee! negarrez, negarrez!” -Orduan berak xamur xamur begiratu zidan, barre egin nahirik bezala malkoak lehortu zituen, eta esan zidan: “Hator nigana, Arantxa”. Joan nintzaion... Esku biek burua bigun-bigunki hartu, eta astiro begiratu izan ninduanean, hementxe (bekokian) musu luze-luze bat eman zidan... Burua utzi zidanean beste bi malko zeuzkan begietan, lehengoak baino lodiagoak... Baina horra; haiek ez zidaten barregarrik eman. Zergatik ez nekiela ere, erruki izan nion, eta harrezkero... Yon asko asko maite dut! -Berriro eseri nintzen, eta geroxeago, hitzik atera gabe, alde egin zuen. Nik ez nion ezer galdetu, ezer esango ez zidala igerri bainuen... (Isilunea) Ama, zergatik egiten ote zuen negar Yonek?...
- Miren Ez zekinat, maite.- (Berekiko) Bihotzik ba ote du ba, Jauna?...
- Arantxa Zer? Berriz negarrez?... Hauxe da lana! Etxe honetako guziak negarrez, eta ni bakarrik barrez

beti! Ez ba!... Oraingoan (Eskua begien aurrean jarri-rik) neronek ere egin behar dut. -Ezin!- (Begiak behatzaz txistuz igurtzi ondoren) Jas! Ezin, honela ere!

II.

Lehengoak, MARTIÑE eta ANDRE XERAPI. (Sartzerakoan, ama-alabak begiak lehortzen aurkitzen dituzte)

Martiñe eta Xerapi	Arratsalde on Jainkoak dizuela...
Miren	Bai zuei ere.
Martiñe	Zer da etxe honetan? Biok negarrez?...
Miren	Txantxetan ari gintunan.
Arantxa	Ni txantxetan; ama, benetan...
Martiñe	(Mireni) Zer dun?... Betikoa?...
Arantxa	Yonek maite ez duela dio!... Zer deritzozu, izeba?... Laztantzzen ez duelako! Ja, aja, aja... Gainera, amona ikustera joaten delako haserretu egin da...
Martiñe	Amona ikustera! Ez din azal-gaizto horrek amona txarra!
Andre Xerapi	Hori esan, hori! Je, je... Herri osoak badaki Yonen amona-ikusteak zer diren!...
Arantxa	(Oso ilundurik) Zer? Zuek ere bai?...
Miren	Tira, maite; nexka txikiak andreen aurrean isildu egiten ditun. Baratzara joango bahintz...
Arantxa	(Haserre samar) Ez dut txintik aterako; baina

- ertz hauxe bukatu behar dut. (Bere aulki txikia hartu, eta bekoki ilunez gelako txoko batean esertzen da).
- Miren Eser zaitezte, eseri. (Esertzen dira).
- Andre Xerapi Bai, enetxoa, bai... Haurrak hazi itzazu horretarako.
- Martiñe Egia! Beren beharrik haundiena denean, neska motz baten atzetik txoro-txoro has daitezen!...
- Andre Xerapi Etxekoez ahaztuta!...
- Martiñe Beren beharkunari astun iritzita! Ero, bihozgabe alaenak!
- Miren Arren, hago isilik... Nire semeaz horrela jarduten entzuteak min egiten zidan... ama bainaun. Gainera... orain arte ez dun gaiztoa izan.
- Martiñe Bai, atera hadi beti bezala bere alde.
- Andre Xerapi Ez, hire ahizpa hizpidean zegon. Yon seme on bat izan dun beti. Langilea, zuzena, txintxoa, neskatzik onenaren gai. (Mirenengana bihurtuz) Baina horrexegatik da negargarria, inoren baimenik gabe, etxekoen iritzia eskatzeko, nolanahiko neska andregaitzat hartzea... Ez zenioke utzi behar...
- Miren Hogeita bost urte ditu: ez natzaio ni aurrean jarriko. Gainera, neskatzia ona dela entzun izan dut... Hori bai; arditik ez duela...
- Andre Xerapi Ona... ona... Oso buru-arina... Jai eta mutil-zale porrokatua, eta... Tira; inortzat gaizki jardutea ez dago ondo eta isildu egingo naiz; baina... ez dira oso politak nik entzun ditudan gauzak... Nire

- alaba batez horrelakoak esango balira, kalera irteten ere lots nintzateke. Bai; ez du horrelako akatsik nire Garbiñek, eta diruz ere eman geniezaioke zerbait. Baina, halaz ere, bestelako horiek maitagarriagoak beti. Bai! Mutilitsuak!...
- Miren Ezin daitezke sinistu jendearen esan guziak...
- Martiñe E? Andregaiaren alde ere bai?...
- Miren Inoiz nire erraina izan daiteken, eta ez dinat bere izena beztutzen inoren lagun izan nahi. Gainera, ondo dakin erorrek nondik ikasi izan dudana nik neskatar horren berri.
- Martiñe Bai, egia dun; nik ere ez dinat inoiz horren kalteko esanik entzun; baina Xerapik dioena ere aintzakotzat hartu behar dinagu.
- Miren Ona sinistu nahiago dinat, txarra baino.
- Andre Xerapi Damutu liezaizuke...
- Miren Ez dakit. Baina ni atsekabetzen nauena ez da mutilak nire iritziaren gibel andregai hartzea. Oso polita da etxeko guztien atseginez norbere haurren ezkontzak egitea. Baina, askotan, horrelako uztarria ez da uztartuen atseginekoa izaten. Bihotza zer den badakit; nik ere maite izan baitut. -(Ahizpari) Hik ez dun maite izan eta gauza hauek ezin uler ditzazkeen ondo...
- Andre Xerapi Zer zaizu ba samin?...
- Miren Hara: etxeari Yonek eusten dio. Badakizu, Yonen lanetik jan beharrean gara ni eta bere arrebatxoak. Beraz, Yoni, eskuak hutsik dakartzan neskatar batekin ezkontzeko, gu gatazka

galerazenik haundiena; bakarrik izanez gero, noiz-nahi ezkontzen ahal bailitzateke. Noski, guri jaten eman beharrari astun iritzita da... Beti isil, beti itzal, bere kezak amari aitortu nahi ez dizkiola... Hori zait samin: ama bat gehiagotzat ezin hartua. Andregairik duenik ere ez dit esan. Larunbata etorri, eta amona ikustea ala beste edozein maratila dela, alde egin. Gero, etortzen denean, nire ihesi dabil, andregaia nahi baino lehenago utzi beharrak niganako haserrea eragingo balio bezala. Gaur, oraindik ez dakit etorria den. Amari agur egiteko ez du ito behar haundirik izango, ez! (Isilunea) Bai; ez du aita bizi... (Isilunea) Niganako maitetasunik eza! Horixe! Besterik ez zait samin.

Martiñe

Ai txoro alaena! Hori guziori guk esan bagenian, aterako hintzen su eta gar semearen alde!...

Miren

Utz nazan... (Isilunea; gero, lehenagoko esaldia-ri jarraituz bezala). Baina... gu galerazen bagatzaizkio, ez du luzaroko galerazenik. Eskera irten nahiago, inorganako zor antzean egon baino. Nire zamari astun baderitzo, ez nau bizkarretik bota behar izango: neroni kenduko natzaio gainetik. Aske da. Ezkon bedi nahi badu!

Martiñe

(Andre Xerapiri) Jas! Ikusi al dun horrelako emakumerik? Ez zekinat zer egingo niokeen! (Mireni) Horixe dun ba zorakeriak esateko gogo! Hemen ez zion nik beti esan izan dinadana baizik: (hurrengo hitzok geld, sendo eta nagusiro) Yon ezin liteken ezkondu, eta ez dun ezkonduko; alferrik zebilen. Ezkondu baino

aurretiagoko eginbeharrrik bazeukan. Astia galdu eta neskari galduarazten zion, asmo hori burutari erabili hutsaz!... (Jaikiz) (Xerapiri) Eta goazeman; bederatziurrenerako kanpaia jo zitenan-eta.

Andre Xerapi

(Jeikiz) Goazen, bai. Berandu da.

Martíñe

(Mireni) Ez al hator hi?...

Miren

Ez, lanez josita nagon-eta; baino ateraino lagunduko dizuet. (Joan).

Arantxa

(Irteterakoan guziei begi-zeharka begiratzuz)
Agur, agur... Txoko honetan bi belarri zeudela ahaztu zaie oso.

III.

ARANTXA eta YON

YON

(Arantxa ikusi gabe) Tira ba... Etxean nauk horratik! (Geldiune laburra) Beldur naiz ama ikusteko... Zer esan behar diot?... -Jas!
Gezurretan ibili behar, gezurrari gorroto bizia diodalarik! -Hiru egun hauek non igaro ditudan galdetzen badit? Oraintxe zer asmatu ez dakit... Honela ezin jarrai genezake, adiskidea... Eta... egia esateko, berriz, ausardiarik ez! Andregaia dudala: horra nire gaiztakeria guzia... Baina hori agertuko banio -nire ama ezagutzen dut-, gutxi gutxienez bera eta bere alabatxoak etxetik bota nahi ditudala uste izango luke, bihar goizetarako... nire beharkunaren zama astun hau lepo gainetik kendu nahian nabilela... Jauna, sail honen erabaki-bidea Zugar utzia daukat: zuzen

itzazu gauzak onenetik: (Arantxa ikusiaz) Hara!
Hor al hintzen hi? ... Ez dun lanerako gogo
makala!

Arantxa Aurki azkena!

Yon Hator honantz, hator... -Eseri nire aldamenean-
Arantxa, galdera txiki batzuek egin behar dizki-
nat; esango al didan egia?

Arantxa Bai. Ea...

Yon Amak esan al du nitaz zerbait egun hauetan?...

Arantxa Amak, eta izebak, eta Andre Xerapik ere bai...

Yon Horrenak ez esan. Amak eta izebak zer esan
dute?

Arantxa Andregaiia duzula eta ezkondu-nahian zabiltzala.

Yon (Arranoa! Badakite!)

Arantxa Zure amona-ikusteak zer diren ondo dakitela...

Yon (Guzia... -Hobe!)

Arantxa Ezin ezkon zintezkeela, eta ez zarela ezkondu-
ko. Eta asmo horretan bazabiltza, astia galdu eta
neskatxari galdu arazi egiten diozula.

Yon (Oso sututa) Nork esan du hori?...

Arantxa Izebak. -Eta esan ere egin dut nire artean: -
"Horren zaila ote da ezkontzea, Yonek ez ahal
izateko? -Zer da ba? Tira: emaztegaiak soineko
zuri apain bat behar duela... Horixe... -Baa!...
Neronek ere egingo nioke! -Gero, berriz, biok
elizara joan, puska batean elkarren ondoan

belauniko egon, eta kito... Horrelako gauza zaila al da ba hori, Yon?...

Yon (Irripar saminez) Batzuetan bai, Arantxa... Eta orain, hoa baratzara; utzi nazan bakarrik.

Arantxa Bai, oraintxe nindoan, ertz hau bukatu baitut. Baina (zurikari) lehengoan bezala musu bat emango bazenidake...

Yon (Barrez) Bai, eder hori. Hator... (laztanten du) Agur, Arantxa.

Arantxa Agur. (Atetik, behatza ezpainetan duela) Isilik gero! (Bihoa).

IV.

YON bakarrik

(Batetik bestera haserre haundiz dabilela)
Ezkondut ezin!... Ezkondut ez!... Astia galdu!...
Astia galdu arazi!... Hona hemen ezkondut ezin daitekeen mutila! Beste edozer gauzatarako Jaungoikoa bada; ezkontzeko, ez! Esan hakiok amari fraile joan nahi duala; eta amak eta izebak eta herriko atso guztiak esango diate; “Hoa, hoa... Jainkoa goian zagok bai, eta txoriei begiratzen dion Aitak ez ziguk guri bere laguntza ukatuko”. Baina... ezkondut? Ez duzula gutxi uste! Ni, nire bihotzak aukeratutako neskatxarekin, ezkondut?... Bai zera! Ez gaur eta ez bihar! Ederki eman ere! Behin ere ez! Aditzen?... Ezin naiteke ezkondut, eta ez naiz ezkonduko!

V.

YON eta XABIER

- Xabier Bejondeiala!... Hori duk hitz egitea, mutil! Ni bezala betiko mutil-zahar gelditzeko asmotan beraz? (Yon lotsa-lotsa eginda) -Ta? (Oso irrikari) Etorri al haiz ba? Zer dio "amonak"?
- Yon Ondo... ondo-xamar... hainbestean... Oso zaharra egotea, horixe...
- Xabier Je, je, je...
- Yon (Berekiko) Honek ere bazekik zerbait!
- Xabier Zaharra beraz, e? Je, je, je...
- Yon (Lehor) Jolaserako gogo gutxi dakarkit. Agur.
- Xabier Tira, tira, ez haserretu! Hator, hator, basatia hi berriz! Orain egun gutxi ezagutu banauk ere, gertatzen zaian guzia esan diezadakek. Zerbait ikasia nauk eta nire laguntzak, behar bada ez likek gaitzik egingo. -Tira, eser gaitezen elkarren ondoan, eta zigarro bana erre dezagun... (eman dio) Ea ba... Hasi hadi hire bihotz bigun hori hustutzen. Nor eta nolakoa duk hire andre-gai hori; non daukak bera, noiztik; zer asmo dituk, noizko, elkar asko-asko maite al duzue?... eta abar... eta abar... (Guzia erdibarrez. Isilunea. Yonek osabari beldurti begiratzen dio, haren hitzak benetan hartu behar dituen ez dakiela) Arrano beltza! Mutil maitati hauen gibel-beldurra! Esan-minak irrikitzen hago-eta!... (Beste itxoinaldi labur bat. Gero, jaikitza bezala eginda) Tira ba; zer egingo zaio!

- Yon (Berriro eser arazten duela) Ez, osaba. Barkatu. Benetan bihotza norbaiti zabaltzeko beharrean nagokizu!...
- Xabier Hala ere, hala ere!... Hitza bihurtu zaionean!...
- Yon Askotxo galdetu didazu; baina axola ez badizu, lehenbizikotik has gaitezen...
- Xabier Horrelaxe ohi duk burudunen artean.
- Yon Horra ba... -Orain zazpi urte...
- Xabier Zakur alaena! Ez duk atzoko gauza!
- Yon Uda Ondaurtzen igarotzen nuen. Nire biziera ederra zen, eguzki-urre eta amets urdinez jantzia...
- Xabier Hemezortzi urte hituala laburrago esan hezakean; baina tira, ez zagok hain gaizki...
- Yon Orduan eta hantxe ezagutu nuen gaur nire emaztegaia dena. Ni baino urte betez gazteago zen: polit-polita, apala eta burutsua. Elkarrenganako zaletasuna barrez eta jolaska aurki jaio zen. Bion lagunek guk geurok baino lehenago nabaritu zuten, noski, gure gainean maitasunaren hegada biguna...
- Xabier (Irrikari, arpegiz ben-ben baino) Hegada biguna!
- Yon Osaba! Hasarretu egingo naiz!
- Xabier Txist! Maitasunaren hegada biguna igarri ziaten... eta?...
- Yon Eta... bakarrik uzten gintuzten. Gu ez ginen ezertaz ohartzen. Haur bi ginen, esateko, eta

gauza bat bakarrik genekien: elkarrekin egotea oso atsegin zitzaigula...

Xabier Elkar maite izatea dik ezbehar horrek izena.

Yon Elkarri agur egiteko garaia etorri zenean, begi haundi eder haietan bi malko ikusi nituen. Joan zen... Horra guztia: besterik ez zen izan bion artean. Ezkon-agintza zer zen ere ez baigene-
kien artean, esateko...

Xabier (Oraingoan barrerik gabe, eta zotin bat ito ezin-
nik) Ipuin ezia!

Yon Negu osoan urrezko oroipen hura bihotzean eduki nuen. Etorri zen berriro uda, eta elkar bilatu genuen. Baina nik ez dakit zer gertatu zit-
zaidan... Lehenbiziko egunetan berarekin ezin hitz egin izan nuen, artean lagunik etorri ez eta etxekoekin ibiltzen baitzen. Eta hitz egin ezinak buruari lan eragin zion. Iruditu zitzaidan ume eder hark ezin igaro izan zuela negu osoa, eri haundi batean, beste norbaiten maite-hitzak ent-
zun gaberik...

Xabier Zerk uste eragin zian hori?

Yon Ezerk ere ez; irudipen gaizto bat besterik ez zen; baina eguna joan eta eguna etorri barrendu zitzaidan oso, eta egitzat jo izan nuen inongo biderik gabe irudimenak emandako uste hura... Gainera, gerokoak, ibilketa haren ondorenak, aurreko urtean gogora etorri ez zitzaizkidanak, beldurtu ninduten... Lainopetik bezala irteten, nire galdera guztien erantzuna bezela, buruak beti hitz bat zerakusdan: ezkondu... Ezkondu,

ezkondu! Nire urteei eta nire eduki-ezari begirata hitz hori beldurgarria zitzaidan... Zenbat urte behar izango nituen ezkondu ahal izateko...? Orduantxe igarri nuen asko maite nuela: utzi-beharra erabaki nuenean: baina horratik ere aztu ahal izango nuela uste izan nuen, bestela...! Gau ilun batez Jainkoari otoi hauxe egin nion: maite ez baninduen, itzali zezala oinazetik gabe nire garra; maite baninduen ordea, bere Laguntzaren bide ezkutuen bitartez elkarganatu eta bizibidea eman ziezagula. Harrezkero ez nion gehiago jaramonik egin; inoiz ezagutu ez banu, edo beragandik irain haundi bat hartu izan banu bezala. Aurpegiak ez zuen nire barrena salatzen, noski... baina, a!, nolako garraztasuna bihotzean...!

Xabier

Sinisten diat.

Yon

Bost urte igaro ziren. Bitartean nire bihotzak ezin maite izan zuen beste inor, ahaleginak eginda ere... Oraintxe urte bete berriro aurkitu nuen neskatxa hura. Agur egin zidan buruaz eta agurtzeko asmotan gelditu nintzen berarekin, lagunak utzita. Hasi ginen hizketan eta uste gabe antzinako oroipenetara jo genuen. Halako batean berak galdera hau egin zidan: “Eta zure haserre hura, Yon, gogoratzen al zara?” Hitz hauexek ireki zuten gure adiskidetasun berriaren atea... Zaletuta nengoen ni berari hartaz zer bait esateko; baina etsita nengoen ez nuela behinere hartarako garairik izango. Luzaro hitz egin genuen eta orduan igerri nuen zein txoroki eta burugabe utzi izan nuen bost urte lehenago.

Maitetasuna ez zen itzali gure bihotzetan, zer egitea zegokidan? Igarri nuen garai hartan bihotza agertzen ez banio, bizi guzian izango zitzaidala damu. Beste aldetik, ukatu egiten bazidan ere, ez al zen hobe zerbait ziur jakin, halako zalantzan jarraitzea baino?

Xabier

Noski.

Yon

Nire maitetasuna aitortu eta eskaini nion. Poz-pozik eman zidan baietza. Orduan esan nion; onegia izan zara; eta nire bihotz osoa gutxi duzu eskertzat. Gaztetasunaren erdian bizi nahi ez zuen gizona sendatu duzu; baina zure hitz hori atzeratu dezakezu orain esan behar dizudana entzun ondoren: Ni, ezkondua ez naizelarik, guraso bezala naiz, gurasorde. Nire ama alarguari eta nire arrebatxoari begiratu beharrean nago; gainera ez dut ezer, nire lana besterik; beraz itxoin beharrean gara, Jainkoak nahi izan arte. Irribarre egin zuen, eta gorriturik esan zidan: nik ere eskuak hutsik dakarzkizut. Zure berri badakit, baina itxoiteak ez dit axola. Zuk beti maite izatea, hauxe dut aski.

Xabier

Neskatxa maitagarria.

Yon

Horra esan jakin zenuena... Baina, zer da hori, osaba? Begiak bustita dituzu...

Xabier

Je, je... Ez duk ezer... ez duk ezer... Nik ere nire bihotza izan diat, ba al dakit? Eta bat-batean, samin-eztiak zaizkidan oroipenak astindu dizkidak barrenean... Nik ere badiat nire ipuina... Hirea bezain pozgarria balitz!... (Isilunea. Ilun-ilun, burua makurtuta gelditzen da.)

Yon

Esan, osaba... Oso alai eta axolagabetzat zintudan ezagutu zaitudan egun gutxi hauetan... Baina zure bizitzan ere malkoak izan direla igartzen dut orain. Esan: nik ere ikasi nahi dut zure berri.

Xabier

Esango diat hitz gutxitan. Neskaxa bat maite izan nian nik ere: ona huen baina ez zian dirurik. -Nik ere ez, eta -hauxe aitortu beharrean nauk-. lanerako zaletasun haundirik ere ez. Dena dela, nire gurasoak aurka izan nizekian. Nik ez nian bihotzik izan. Bizitza ilun ikusten nian, eta ez nian hik bezala Jainkoagan ipini nire itxaropena. Gurasoen haserre biziak zapuztuta, urrutira joatea sumatu nian, guzia ahazteko. Ameriketara joan ninduan. Neskaxa ura ezkondu huen nik bera ahaztu baino lehenago. -Eta maitasun ona ukatua izan zitzaidanez gero, maitasun gaiztora jo nian itsu-itsu.- Eta oso galdu ninduan. Bizierarik nahastuena eraman izan diat. Aspertu naizenean, nire bizitza hautsita aurkitu diat betiko. Eta gaur -ai gauzak nola diren!- gaur ezkondu nintekek aberatsa nauk eta; baino biotza lehor diat, eta gainera ez zioat inola emakume on bati, nire ibilketa txarren errurik izan ez duan bati, gizon baten hondakinik eman nahi. Ni ez nauk ezkonduko. Baina nik egin nuena egiteko zorian norbait aurkitzen badiat, eskua luzatuko zioat, eta izango dik nire laguntza. Ik, Yon, hartu nahi baduk oso osoa izango duk; eta zorionekoa izango nauk, nire zoriona hautsita ikusi arren, beste batena zuzendu ahal izan badiat...

- Yon Osaba! Bihotz haundia duzu...
- Xabier Esandakoa... Garaia deritzenean, nigan lagun on bat arkituko duk...
- Yon Eskerrik asko, osaba...
- Xabier Baina oroipen negargarriok utz ditzagun. -Ez didak esan andregaia non duan, nondik etorri haizen gaur...
- Yon Loiola ta Azkoiti bitarteko etxe batean. Ur sendagarri batzuek daude han; eta haiek hartzen haren ahaide batzuek. Aurten ezin joan izan da nire amonaren herrira eta gure elkar-ikusteak erraztearren hor gelditu da.
- Xabier Eta amak ez al dik ezer esan?
- Yon Ez, baina oraintxe gauza batzuk jakin ditut.
- Xabier Ea nolakoak.
- Yon Izebak esan duenez “ni ezin ninteke ezkondu eta ez naiz ezkonduko”.
- Xabier Ni ere ezin ezkondu ninduan... Hobe bai astakeria hori sinistu ez banian!
- Yon Eta bai al dakizu zer bururatu zaidan? Gaur bertan amari esan behar diot fraile noala...
- Xabier Zertarako?
- Yon Ikusiko dituzu guziak oniritzia ematen... “Zer egingo dugu? Jainkoak ez gaitu goseak hiltzen utziko”... Eta nik esango diet: -Zer? Ezkondu, amari eta etxekoei begiratu beharra dudala-eta, ezin ninteke ezkondu... Ezin ninteke ezkondu ez gaur eta ez bihar... Baina fraile joan? Oraintxe

bertan, etxekoak marru gorrian utzita bada ere... Hori bai! Eta ezkontzarako deia ez al da frailetzarako deia bezain entzungarria, hain donea ez bada ere?

Xabier Ederki sumatua zegok. Hik egin ezak hori, eta ikusiko diagu zer esaten duten... Gero, utzi ieza-dak niri gainerantzekoa, hizlari ona nauk-eta... Goxoak ipiniko dizkiat emakume horiek...

Yon Adi ezazu... Ama datorrela uste det... Utz nazu bakarrik...

Xabier Bai, ama duk... Agur eta ez beldur izan. (Joan)

VI.

YON eta MIREN

Miren Hemen al haiz? Arkitu nahi hinduan. Biziera honexek aspertu eragin zidak, eta hitz egin behar diagu... Bazekiat andregaia duana eta ezkondu nahian habilena.

Yon Ama...

Miren Bazekiat gainera, hori egiteko ni eta hire arre-bak gaituala galerazpen.

Yon Baina, ama...

Miren Ez, alferrik duk; hire arreba eta hire ama ez dituk gaurtik aurrera galerazpen izango... Erruki-etxera joan nahiago diat horrela bizitzen jarraitu baino...

Yon Ama, ixo!

Miren Ixo, ixo... (Negarrari emanda) Gehiegi isildu

nauk... Ezkondu egin nahi al duk? Ezkon hadi!
Joango nauk ni nire umeekin...

Yon Erotu egin al zaizu, ama?

Miren Erotu, erotu!... Seme eskergabea!.. Non izan
haiz egun hauetan?... Joan den igandean eta
aurrekoetan nora joan hintzen? Ezer ez dakidala
uste al duk? Ez baina hik esanda, noski! Gauzak
ikasi badizkiat atez harantzik irakatsi behar izan
zizkidatek... Baina hau bukatu duk, seme; gu
gora-behera, aske haiz...

VII.

Lehengoak, MARTIÑE ta ANDRE XERAPI

Martiñe (Begi-zeharka bere ilobari begiratu ondoren)
Zer dugu?

Miren Berri handiak (Zotinka) Yon, zerurako dugu!

Martiñe Zer, zer, zer?

Andre Xerapi Ea, ea, ea?

Miren Fraile doa...

Martiñe Ezin liteke! Ai hori egia balitz! Ai zer zoriona
beretzat eta horrelako semeak izan litzazkeen
amarentzat! Yon, egia al da?

Yon Bai, izeba; Jainkoaren deiari ezin entzungor
egin.

Martiñe Bedeinkatua izan bedi zure izena, Jauna (Zapia
begietara).

Andre Xerapi (Hauxe bai ez nuela nik uste!)

- Martiñe Miren, ez larritu! Etxeko euskarria doakizula!
Zer axola zaizu! Goian dago guzion Aita.
Berak, orain arte bezala, orain arte baino gehia-
go lagunduko dizu.
- Miren Bai; bazekinat.
- Andre Xerapi (Ederrak eman dizkit mutilak!) Baina... horrela-
ko bat-batean, Yon!
- Martiñe Utzi! Jainkoak usterik gutxienean jotzen du
bihotzeko atea. Askotan, munduko ametsetan
eta bekatu-biderik larrienetan sartuenak gaude-
nean..
- Yon Halaxe da!
- Martiñe Orain egin behar duzuna bihar bertan Loiolara
joan gogo-jardunak egitera... Gogoia oroipen eta
amets txarrez garbitu eta zure deia sendotu.
- Yon (Arranoa! (Oso pozik) Hauxe ez nuen uste!
Zortzi eguneko oporra!)
- Miren Bai, Loiolara hoa... Zer duk? Pozik al hago?
- Martiñe Egon ez?
- Yon Bai, etxeko laztan hoiek. Pozak zorutzen nago!
(Andregaiarekin gogo-jardunak egitera! A zer
nolako egun ederrak bota behar ditudan!)

VIII.

Lehengoak, XABIER ta ARANTXA

- Xabier Arratsalde on guziori! Hemen nator,
Arantxarekin nahikoa jolas egin ondoren...
- Martiñe Zatoz, ea, zatoz, ea, Xabier! Ez dakik Yon!

Poztu hadi!

Xabier Zer? Ezkondu egiten dela?

Martiñe Ixo! Zer ezkondu eta zer...

Xabier Ezkondu ezin daitekeela... eta ezkonduko ez dela...

Martiñe Fraile doala...

Xabier Hara!

Arantxa Eeee?

Martiñe Bihar bertan doa Loiolara, zortzi eguneko gogojardunak egitera.

Xabier Ee? Loiolara?... (Ai! ez hago hi azal txarra!)
(Arantxa negarrez hasten da)

Miren Zer dun, Arantxa? (Lasterka Arantxa Yonengana doa; honek esku batez burua hartzen dio).

Arantxa Ez dudala nahi Yon fraile joatea... Ez fraile joan, Yon. Nik ez dut nahi, Yon. Ezkon zaitez!

Xabier Besoak gurutzaturik eta barrez. (Berekiko) Hori duk mutilaren alderdia! Andregaiarekin gogojardunak egitera!

OIHALA

BIGARREN EKITALDIA

Antzeztokia: Zelai bat, zuhaitz-gerizpean. Ikusleen aurrez, urrutian, Loiolako Etxe Donearen atzea. Mahai bat eta zumezko aulkiak.

I.

YON eta BEGOÑA. Begoñaren ama barrendik

(Ehuna jasotzerakoan antzeztokia hutsik. Gero, neskatxa-algara garbi bat entzuten delarik, agertuko dira, aurrez aurre, elkarri eskutik helduta. Sartzerakoan mutilak neskatxa geldiarazten du, eskuak askatu gabe.)

Yon	Nolako ederki ibili garen, eee, maite?
Begoña	Haur bi bezain alai.
Yon	Jolasean, lasterketan, masusta-jaten..., guztia zeru eder honen azpian...
Begoña	Beti ume-ustetan iraun ahal bageneza, ez da hala?
Yon	(Zerbait benduaz) Bai, egia diozu: geure buruari beti ume iritzi ahal bageniezaioke! Ordubeteko umetasun ondorean, ordea, egun osoko, aste beteko kezka... umeak ez garela adieraziz.
Ama	(Agertu gabe, deiadarka) Eee, gazteak! Non zarete?...
Begoña	(Eskuak aguro-aguro askatu, eta, aulki batean eseriz, lehen mahaian utzitako langaiak hartzen dituela) Hementxe, ama; lehengo tokian bertan...

- Yon (Barrez) Hementxe, lan eta lan...
- Amak (Beti barrendik) Tira, ba; zintzo egon, inora alde gabe.
- Begoña Bai, ama.
- Yon Halare! Gure ihesaldiaz ez da ohartu.
(Begoña josten ariko da. Mutila aldameneko aulkian eser biezaio. Isilune luze samarra, noizean behin elkarri begiratzen diotela.)
- Begoña Yon, gaur azkenengo eguna...
- Yon Bai...; azkenengo eguna!... Gezurra dirudi, e? Zortzi egun nola joan zaizkigun... (Berriro isilunea).
- Begoña Yon... Amak zer esango dizu? Egun hauek non igaro dituzula esan behar diozu?...
- Yon (Mindu-antzean) Pxe! Zortzi eguneko oporraldia hartzea egin dut, urte osoa lanari eman ondoren... Askok al da?
- Begoña Niretzat ez da asko izan.
- Yon (Berriro arpegia argituz) Harantz-honantz ibili naizela esango diot, bazterretan ditudan lagunei ikustaldi bat eginez... edo... beste edozer gauza! Ipuiak asmatzen mutila naiz ba ni! (Beste isilunea. Nexka itzaltsu. Mutilak, zeharkaxe bederik, begirik ez dio kentzen.) Zer duzu, maite? Maizegi bezala, ilun, itzaltsu... (Alai) Tira, barre egidazu; ez zaitut horrela ikusi nahi.
- Begoña Yon... Zergatik ez diozu zure amari guztia esaten?

- Yon Esan... Esan...! Zertarako esan? Badakizu orain oraingoz, puxka batean itxoin gabe alegia, gure elkartzea ezina dela... ni seme gaiztoa ez izate-kotan, behintzat...
- Begoña Bai. Eta seme gaiztoa izan nahi bazenuke zuk, ez zintuzket nik senargai ontzat hartuko. Itxoin-beharrik gara, egia... Baina, ama horrela gezurpean edukitzea ere...
- Yon (Albora begira berekiko) Gaixoa! Zu bai, bazauzkat gezurpean... Baina ez luzarorako. Gaur dira nire azkenengo gezurrak... Ikusiko dugu zer gertatzen den hemen.
- Begoña (Larri) Ez didazu erantzuten...
- Yon Hara, ba; bihar bertan, etxeratzean, guzia esango diot.
- Begoña Bai? Benetan? (Pozik; berehala bat-batean berriro ilundu)
- Yon Bai.
- Begoña (Beldur) Eta zer esango dizu?
- Yon Zer?...
- Begoña Gure elkar maitatzeari ez dio ondo iritziko...
- Yon Baina, maite: beldur horrek noiz utziko zaitu?
- Begoña Nahiago bai oraintxe balitz...! Baina, ezin, alferrik... Aspaldi esan nizun Yon: "Atsekabe haundiak eramango dituzu zure etxean nigatik. Nirekin ezkontzerik ez dute nahiko... Ni maite izana ez ote zaizu inoiz damutuko?"...
- Yon Ta, zer erantzun izan dizut nik?

- Begoña Bai, zure erantzuna badakit. Baina hala eta guziz ere, beldur naiz... beti beldur! Betirako maite ote nauzu, beinere ez aspertzeko? Ez ote da gure ametsa orain urte batzuek bezala hutsean urtuko?
- Yon (Esku bat bigunki hartzen diola) Ez, maitea. Gaur ez naiz ume. Ezkon-agintza zer den, ezkon-agintzak giza-legez zertara lotzen duen badakit. Bi eginbehar ditut nik, Begoña, biak begiragarriak. Etxeak lotzen nau: ama-alabak nire beharrik izango duten bitartean, beraiei zor natzaie. Baina zuri ere zor natzaizu, egin dizudan aginduagatik. Bi beharkun ditut, eta ez bata ez bestea ezin nezake uka. Biak erabat bete ere ez. Hargatik bakoitzari bere garaia gorde beharra. Lasai zaitez, laztan hori, ezerk ez inork ez bainau nire hitza haustera behartuko. Hara, beti hala uste izan dut: Jainkoak elkarbidea egokitu zigun; Jainkoak gure nahi garbia begi onez dakusa; Berak, hasitako lan honi azken ona ipiniko ahal dio. Noiz? Ez dakit, baina... Begoña, itxaropen bizia dut: aurki, zuk uste duzun baino lehenago erabakitzea baliteke.
- Begoña (Poz haundiz) Benetan?
- Yon Apika, bai.
- Begoña Jainkoak nahi beza.
- Yon Esan dizudan guztia nire gizatasunak agintzen didana da. Baina, bihotzak agintzen didana esango banizuke!
- Begoña (Otoi-maitekor) Esan ba esan, esan...

- Yon (Barre-antzean, maitero) Inor zu besterik ez dudala maite izan, gazte-gaztetandik nigan zauzkat-eta... Maitetasuna zer den ez nekien garaian zure begietan ikasi nuela; eta hura ikas-te gozoa!... Nire hitza hautsi nahi izan ezkero ere.
- Begoña (Lehen bezala) Zer, Yon, zer?
- Yon Ezin hautsiko nukeela, bizi osoa zugan ipinia naiz-eta...
- Begoña Eskerrik asko, Yon. Barrena argiz ta itxaroz bete didazu hitz horiek bide direla. Zintzoa zara. Barkatu, askotan nire beldurrok agertzen badizkizut. Barrenak ematen dizkit nik nahi ez arren; eta maiz esan badizkizut, maizago eduki izan ditut ezkutuan, bakarrik negar eginez.
- Yon Gajoa! Baina oraingoan sinisten didazu, ezta?...
- Begoña Bai!
- Yon Bete-betea?
- Begoña Bete-betea!
- Yon (Barrez) Noiz arte?
- Begoña A! Hori... (Barrez) Buru gaizto honetan zalantza berriarte. Behar bada, ordu laurden bat barru!
- Yon (Bat-batean jaiki, eta eskuak txamarrako sakeletan erabil bitza zerbaiten bila balebil bezala, erabat, begi-zeharka, ikusleen ezker-alderantz urrutia azter beza). (Berekiko) Laurak oraintxe. Hor bidean jendea ageri da. Beraiek dira!
- Begoña Zeren bila zabiltza ordea? Jas! Asmatu baietz;

tabakoa etxean ahaztu...

Yon Halaxe da, ba.. Itxoin iezadazu hemen. Berehala nator. (Bihoa, urduri samar eskuinetik, aldian behin ezkerretara begiratuz)

Begoña Ai, ai, ai! Horixe ezin utzi, behinik behin: ni laga nahiago... Aguro etorri, e?... (Puska batean neskata bakarrik gelditzen da, bere joste-lanari ekinez)

II.

BEGOÑA, XABIER, ARANTXA

Xabier (Arantxa eskutik duela agertzen da, ezker alde-tik) (Burukoa kenduz) Arratsalde on, neskata eder ori...

Begoña Bai zuei ere.

Xabier Gezurra dirudi zu bezalako aingerua bakarrik egotea. Ez al duzu laguntzailerik?

Begoña (Barrez) Banuen orain artexe, baina utzi egin nau.

Xabier (Berekiko) Hauxe da Yonen andregaia, inondik ere... Hori duk azala! Horrelako puxka goxoa bilatu hark, trapu alaenak, begiak lurretik jasotzeko gauza ez dirudien arren!

(Bitartean, Begoñak eta Arantxak elkarri begiratu eta irribarre egiten diote, aurrenengo ikusian bata bestea atsegin balute bezala)

Begoña Alabatxoa duzu nexka polit hau?

Xabier Nahiago bai! Baina ez, iloba dut... Atsegin

zaizu?

Begoña Bai. Lagun onak egingo ginateke, noski, pixka-tean elkarrekin egonez gero.

Xabier Benetan? Orduan zeure zaintzapean uzten dut. Jatekorik zerbait eska daiteke, noski, hemen...

Begoña Bai, bai. Etxekoandreari deitzea nahi al duzu?

Xabier Baita ederki eman ere! Ez inola, eder: eskerrik asko. Banoa neroni: jatekorik eskatuz gainera, badut beste zeregintxo bat... Mendi horietan, nekauste edo penitentzi gogorrean dabilen fraile donetsu bat bilatu nahi nuke.

Begoña (Harrituta) Hara berriz! Fraile bat diozu?

Xabier Ezagutzen al duzu, ala?

Begoña Ez nik behintzat hemen frailerik...

Xabier (Berekiko) Fraile ona zegon hik ezagutzen dunana! (Begoñari) Harritzekoa da behin ere ez ikusia... Baina, "Ugats-Iturri"ko urak hartzera etorria omen da-eta, ezin urruti izan.

Begoña Ezin daiteke...

Xabier Ezin daitekeela?... Ikusiko duzu nolako aguro bilatzen dudan nik. Gaztetan oso adiskide izan-nak gaituzu, eta urte askotan elkar ikusi gabeak garen arren, duro bat egingo nuke gure txikitako txistu-deia ez zaiola ahaztu... Agur, ba, neskatxa atsegin hori: gero arte. (Burua makurtuz, begi-rune haundiz) Gaurgeroz nigan mirabe apal bat duzu...

Begoña (Barrez, eta berak ere burua agurka makurtuz)

Eskerrik asko, zalduna.

Xabier.

Zu, Arantxa, hementxe geldi zaitez neskatxa on horrekin, guzientzat txokolatea eskatzera noan bitartean... Ama-eta ere aurki dituzu hemen, honezkero. (Berriro Begoñari agurka) Agur!

III.

BEGOÑA eta ARANTXA

Begoña

(Arantxari maitero begiratu ondoren) Musu txiki bat emango al didazu, polit horrek...

Arantxa

Musu Txikia ez, bai ordea haundi-haundia...

Begoña

(Barrez laztantzen du) Zergatik, ba, haundia?

Arantxa

Ama Birjina dirudizulako...

Begoña

Ja, ja, ja! Hori ateraldia! Eta zuk (berriro laztantzen duela) zeruko aingerutxo... Tira, nire aldamenean eseri. Josten ba al dakizu?

Arantxa

Hala, hala...

Begoña

Ederki... Eta, egun askotarako etorri al zara?...

Arantxa

Ez: bagoaz berehala.

Begoña

Oooo!... Hain ederki ibiliko ginenak!

Arantxa

Loiolan izan gara. Zuk ez dakizu, baina nire anaia batek fraile joan nahi du... Nik, berриз, ez dut nahi joatea...

Begoña.-

(Barrez) Ez?

Arantxa

Ez. Nik ezkontzea nahi nuke (ben-ben). Fraile joanez gero gehiago ez bainuke ikusiko! Gainera jantzi haiekin..., oso itsusi emango

lioike... Ezkonduko balitz, berriz, zu bezalakoxe batekin edo...

Begoña Ja, ja, ja,! (Berriro nexka laztantzen duela)
Hoiek burutaldiak! Eta berak, anaia horrek, zuri jaramonik gabe, fraile nahi, e? Ez al da, gero, beltza?

Arantxa Ez; ez da beltza. Ez beltza eta ez gaiztoa...
Amak Loiolara bidali zuen zortzi eguneko jardunak egitera, eta, uste gabeen poz hori eman diezaiogun, osabak esan digu: "Goazen Loiolara mutila gurekin ekarriz". Baina Loiolara joan eta anaia bilatu ez, egin dugu...

Begoña Lehentxeago irtena, onenean...

Arantxa Horixe esan dut nik ere; eta Azpeitin berehala aurkituko genuela... Osabak ordea, hemen uret-xe honetan txokolatea hartu gabe ez gindoazela-eta, toki ederra dala-eta, gutako inork ez genuela ezagutzen-eta... halaxe ekarri gaitu. Baina, horra, ama-eta non datozkigun. (Jaiki eta bere bila joanik, ezker aldera).

IV.

Lehengoak, MIREN, MARTIÑE ta ANDRE XERAPI (Sartzen dira Xabier sartutako aldetik).

Miren Bakarrik al hago, Arantxa? Non da osaba Xabier?...

Arantxa Osaba etxe horretara joan da txokolatea ekarraztera... Baina ez nago bakarrik... (Begoñagana joanez: hau jaiki egiten da eta Arantxak eskutik helduta amari eta gainerantzekoei aurkezten

- die). Ikusten, Ama? Ama Birjina dirudien andre au dut lagun... Oso ona da... Eskua eman iezaiozu.
- Martiñe Hara! Honexek bai lagunak azkar egin non-nahi (Barrez).
- Miren (Begoñari eskua luzatuz) Nola zaude?
- Begoña Ondo eta zu?
- (Besteei ere eskua ematen die)
- Andre Xerapi (Izebari) (Neskatxa egokia!) (Izebak buruaz baietz).
- Miren Ongi. Eskerrik asko. Zorraziko zizun honezkerro berritsu honek...
- Begoña Ez horixe. Oso atsegin egon gara elkarrekin, ez da hala?
- Arantxa Bai ni behintzat!
- Begoña Baina ez al duzue eseri nahi?
- Andre Xerapi Bai, bai; eser gaitezen... Ni neka-neka eginda nago beinik behin.
- Miren Bai ni ere. Loiola hemendik bazter dagoela dirudi, baina...
- Martiñe Ibili egin behar da, ibili... (Banaka-banaka eseri dira)
- Begoña Onenean ohiturarik ez, berriz...
- Miren Nik ez behintzat: haur asko ditut eta etxean beti da lana...
- Hauek zerbait gehixeago ibiltzen dira...

- Martiñe Bai, bai... zerbait gehixeago... Etxetik elizara, elizatik zuenera batzuetan, eta zuenetik gurera... eta kito.
(Isilunea).
- Martiñe (Berezi A. Xerapiri) (Neskatxa atsegin, apala, langilea eta izarra baino ederragoa benetan, e?)
- Andre Xerapi (Halaxe da... Nongoa ote da?...)
- Martiñe Hemengoa al zara? eta barkatu...
- Begoña Ez... hilabete igarotzen nago toki honetan...
- Miren Gaixorik ala?...
- Begoña Ez, ez! Osasun ona dut Jainkoari eskerrak... Baina ama ibili zaigu makal xamar eta hemengo urak hartzera bidali du osagileak... Nik lagundu egin diot...
- Andre Xerapi Horretazkero ez zara ezkondua...
- Begoña (Zerbait lotsaturik) Ez... ez... Oraindik ez...
- Arantxa Baina ez zara moja joango, e?...
- Begoña Ja, ja, ja... Zuk nahi ez baduzu, ez
- Arantxa Ez dut nahi ba! Ezkon zaitez... Moja sartzeko ederregia zara...
- Begoña Ja, ja, ja...
- Martiñe Tira, tira Arantxa. Ixo (Asarre samar) (Begoña hasarrea ikusita, bat-batean bendu egiten da) Zer dakin hik gauza horietaz?...
- Andre Xerapi Umeak beti ume!
- Begoña (Buruan Arantxari maite eginez) Gaixoa!

Miren	Lanean egoki ari zara...
Begoña	Egoki edo... Ahal den bezala...
Martiñe	Galtzerdiak saretzen? (errepassatzen?)
Begoña	Bai, hauek ere urratu egiten dira-eta...
Miren	Urratu! Esaidazu niri! Astero otarrakada bat izaten dut nik... Inoiz ezkontzen bazara eta Jainkoak haur asko ematen badizkizu, gogoratu-ko zaizu esaten dizudana...
Begoña	Sinisten dizut bai.
Martiñe	Aspertuko zara ba hemen... jende asko ez bada-go behintzat...
Begoña	Ama eta biok, eta beste lau emakume eta mutil besterik ez gaude... jende gutxi izaten da hemen; baina zenbat eta gutxiago hobe... Nik nahiago dut behintzat... Herri haundietako istiluen aldean bestelakorik da hemengo bakea...
Andre Xerapi	Harritzekoa da! Oraingo neskatxak ez dira behintzat zu bezalakoak. Gehienak, hona ekarri eta hamabost egun igaroaraziz gero, soinurik gabe, dantzarik gabe, jairik eta parrandarik eta mutilik gabe, txoria kaiolan bezala hil egingo litzaizkizuke... Eta halaz ere ezkongai!
Begoña	Ez dut ezkontzeko presarik...
Andre Xerapi	Ongi da. Baina, horren zintzoa ez bazina, beste zenbait bezalako jai eta mutilzale porrokaturen bat izan bazina, senargaiak mordoka izana izango zinen eta ezkontzez aspertua... Ai, mutilak, mutilak!...

Begoña Ba, ale bat ona hobe mordo txarra baino!

Miren Egia!

Andre Xerapi Zera! Nire Garbiñeri gertatzen zaiona berbera! Ezin hobe eta hala ere neska bargasta hobe edozein mutilentzat!

Martiñe Baina, aizan, gauzok horrela direla, ba al dakin txokolate hori ez dela berehalakoan ekartzekoa? Gure Xabier, bera ari ote da egiten?...

Begoña Hemen gauza horiek ez dira gertu egoten, eta horregatik pixka bat itxoin beharra izaten da... Bertara joan eta sukaldekoak astinduko ditut pixka bat.

Miren Ez, ez. Egon zaitez.

Begoña (Jaikita) Hara; hemen dator... (Neskame bat bost txokolaterekin).

Neskamea.- Arratsalde on! Berandutxo?

Martiñe Ez, ez! Bai zera!

Neskamea.- Sua kaxkar samarra dabilkigu-eta... (Bakoitzari aurrean ipintzen dio. Begoñari ere bai) Berorri ere ipintzeko esan dit hemendik joan den jaunak. Berak ez duela behar...

Begoña Hara berriz.

Miren Bai, bai; ez genuke besterik behar... Gu jaten eta zu begira. Tira, hartu, etxekoa bazina bezalaxe!

Begoña Eskerrik asko ba... (Berekiko) (Ta Yon ez da gehiago azaldu! Jende bera sumatuta izutu egin da nonbait. Honezkero hemen gelditu behar ba!).

Martiñe Baina zer bilatu duela gure Xabierrek honen luzaroan ez azaltzeko? -Neskameari eder iritzi ez bazion! Um!

Begoña Arantxarekin etorri den zaldunaz ari al zarete?

Miren Bai...

Begoña Fraile baten bila dabilela esan du, eta mendi-mendian ezkutatuta badago ere, aurkitu behar duela...

Andre Xerapi Frailea, bai! Ez dakit nolako frailea...

Miren Arren, Andre Xerapi, lelo horretaz ez jardun... A! Nire mutil hori, nire mutil ori!... Galduko zait! Zer egin ote du?

Martiñe Hago isilik! Azpeitin izango dun; edo behar bada, etxean honezkero...

Miren Ez dakit, ez dakit! Gogo-jardunak egin ote ditu?

Martiñe Egingo ez zizkinan ba?

Miren Haundia dun ba jesuitek haren izenaren berri ez jakitea...

Martiñe Asko izaten baititun... Baina hire semeak fraile joan behar duela esan duenean, -berak esan zuen bezala gainera, - negarrak irten behar zionan- eta, benetan joango dun...

Andre Xerapi (Um! Ezzzekinat ba...!)

Arantxa Oi! Begira, ama; fraile bizarraundi bat!

Begoña Hara! Egia zen!...

Martiñe Gure Xabierren laguna.

Miren Eta Xabier ez dator berekin...

Andre Xerapi	Gizajoa! Horixe bai dagoela hil baino zeruaren erdian!
Martiñe	Bai, emakumea! Horixe aurpegikera... Hori gorputz mehea... Ez da gu bezain bigun bizi errukaria...
Miren	Hemen dugu... Jaiki gaitezen...

V.

Lehengoak eta XABIER

Xabier	(Fraile jantzian, apal-apal, begiak lurretik jaso gabe) Jainkoaren bakea zuekin.
Batzuk	(Guziek jaikita hartzen dute; batzuek gerriko lokarriari mun egiteko asmoz) Ongi etorria, aba agurgarri hori...
Xabier	(Mun egin nahi diotenak aldenduarazita) Ez, ez ... Ez naiz ni zuen ezpainak nire jantzietan hartzeko dina... Bekatari haundi bat naiz... Eseri guziok. -Niregatik lurreko har ziztrin onengatik, ez zenuten jaiki behar... (Esertzen dira; frailea ere bai).
Martiñe	(A. Serapiri) (Santu izugarrien bat dinagu hauxe)
Andre Xerapi	(Oinetatik burua din ezagun).
Miren	Aba, gurekin txokolatea hartu nahi al duzu?
Xabier	Goikoak sariztu biezaizu zure onginahori! Baino barkatu; ezin har nezake...
Martiñe	(Hori barau latza!)

Xabier ...bihotzerrea egiten dit-eta...

Martiñe Aaaa!

Xabier Bai; hor sukaldean eskatu ditut niretzako huskeri batzuk... Urdaileri nabil, eta edozer gauzak ez dit onik egiten...

Miren Jakina!

Xabier Gero, andre begiragarri hori, badakizu argalak garena, eta... jan egin behar!

Miren Noski.

Xabier Haragi ta hezurrezkoak gara, gorputz ustelkor hau geurekin dakarkigu... (eta sukalderantz begira) A! Badator! Halare! (Neskamea sartzen da Iruñeko txistorra ta Errioxako ardoaz) Eta nioen bezala, aberea geurekin dugun bitartean... (mokau bat hartuz) jan egin behar...

Andre Xerapi (Opil erdia sartu din erabat!...)

Martiñe (Ixo... Goseak hiltzen zagon errukarria-eta!)

Xabier Gauza lotsagarria! Ai jan gabe bizi ahal bagina, gogoari, animari, gure bizi guzia eman ez!

Andre Xerapi (Dotrina horixe ez zait ba oso atsegin)

Xabier Baina gauza hauen bitartez Jainkoak gure txikitetasuna beti begien aurrean jarri nahi izan digu apaltasunean bizi gaitezen...

Miren Jateko beharra bazenuen, Aba!

Xabier Bai, lotsagarria denez gero, aitortu dezadan guzion aurrean: gose naiz... Zein argalak garen! Aste bete jan gabe igarotzea aski dugu gosea

nabaritzeko...

Martiñe

Jaungoiko haundia! Aste bete?...

Andre Xerapi

Erraxago gosetzen gara gu...

Xabier

Bai, aste betean egon naiz mendian, zerura begira, noizean behin sasi eta larretan nire gorputz pekatariari igortzialdi bat emanez...

Martiñe

Ene ba!

Xabier

Goizero, hemengo usaidun iturriraino etorri naiz bertoko urari zurrutada bat eginez; nagusiek agindu baitidate nire osasun hautsia zaintzera hona etortzeko. Gero, ez dut esango egun osoa jan gabe igarotzen dudarik, ez baita egia. Baina nire janari guztia masustak izan dira. (Guziak elkarri begiratu, ikaratuta). Lau masusta gosaltzeko. Bazkaltzeko eskua bete. Afaritan hamar hamabi bat...

Andre Xerapi

Aitaren eta Semearen!...

Xabier

Igandetean, arratsalde erdian beste masusta mordoska bat, Jainkoaren eguna jaitzearren.

Martiñe

Ia sinistu ere ezin daiteke.

Miren

Gizonak horrenbeste bizi ahal izatea!

Xabier

Baina, makala naiz, eta astean behin garai hontan hona jeitsi beharra izaten dut nire indarrak gauza bizigarriagoaz sendotzera...

Martiñe

Ez da harritzekoa, Aba! Ez da harritzekoa!!...

Xabier

(Ontzi bat ardoz bete, eta jasota, begiratzuz) Hau gauza ederra!... Hau ere eman zigun ba Jainkoak... Gora dezagun Jauna bere emaitze-

- tan!... (Zurrutada batean hustu).
- Martiñe Eta halaz ere, aba donetsu hori, zoriontsu biziko zara.
- Xabier Bai, ene alaba, bai; zorion hutsetan bizi naiz. Ba al dakizue zergatik? Oso erraza da: Goikoaren deia entzun eta itsu-itsuan jarraitu izan natzaio-lako berari!... Eta honetaz bai daudela oker, asko eta asko munduan... Zenbat eta zenbat ez dira galdu Goikoaren deiari jaramonik egin ez, edo etxekoek galerazi izan ziotelako... Gai honetaz zuen gogoak argitu nahi nituzke, hain ederki egokitu zaigunez gero, kristau maiteak...
- Martiñe Begirune osoz entzuten dizugu...
- Xabier Baina, ongi hasteko, Goikoa bedeinkatu dezagun berriz. (Beste baso bat).
- Andre Xerapi (Iturriko ur usaindunak ez dio egarria oso il).
- Xabier (Berriz sukaldarantz begira) Baina! Tira horratik! Hemen da! (Neskamea tortila haundi bat dakarrela).
- Andre Xerapi (Adiskidea! Ez zaizkizu oraintxe zure masustajanak gogoratzen!)
- Martiñe (Mireni. Bere biziko hitzaldiren bat egin behar zigun; nik ez dinat hitzik galduko).
- Begoña (Ulertu ezinik nago fraile honen berri nola orain arte jakin ez dudana).
- Xabier (Arrautzopil puska batzuk irentsi ondoren) Hasi gaitezen, Goikoa lagun dugula. Ene ardi lazta-nak: Jaungoikoaren deia -vocatio, vocations- era askotakoa ohi da: hobeki esateko: era askotakoa

ez; era bitakoa bakarrik. Erlijio-bizitza eta ezkontza. Neska-mutilzahar biziera ez da, nire ustez, eta Eliza Amaren guraso agurgarri askoren ustez, Goikoaren deia; etsaiarena baizik...

Andre Xerapi (Bere artean; Martiñeri begi-zeharka begiratzuz)
(Ederrak eman dizkin!)

Xabier Baina honetan ere, bereiz ditzagun emakumezkoak gizonezkoengandik. Neskazaharrak, gehienetan, ez dira neskazahar beren nahiaz gelditu, ezkondu ezin izan direlako baizik; horiek ez dute errurik, nahiko lana bai ordea gaixoek...

Martiñe (Hala ere! Arnasa hartu ezinik nengoen!)

Xabier Gizonezkoetan berriz badira mutilzahar gelditu direnak ezkontzako uztarri astuna leporatu nahi izan ez dutelako. Hauexei doakie nire lehenengo zigorkada. Eta azkenez, neska bai mutilzaharretan badago beste talde bat: ezkontzarako deia entzun eta beren etxekoen nahiz beren gain aginpidedunen eragozpenez, ezkondu ez direnak; hauek nahiko lan izango dute zeruratzen, baino zuzengabekeriaz ezkontzea galerazi diotenak? A! Ez dizutet esan nahi nolako infernua izan behar duten!

Martiñe Ondo irabazia gainera!

Xabier Baina etorri gaitezen berriro hasierako hitzetara. -Askok uste izaten dute, lekaidetzarako deia bakar-bakarrik izaten dela Jainkoaren deia... Oker larria hauxe! Frailetzako deia bezain donetsua, berau bezain begiragarria da ezkontzarakoa. -Berdin berdin jartzen dira infernura

bidean, batari nahiz besteari jaramon egin ez, edo jarraitzea galerazten dietenak. Zer esango duzue Jainkoak bati frailetarako deitu eta hau, deiari jarraitu beharrean, ezkondu egiten bada...

Martíne

Jainkoak gorde gaitza! Hori bekatu larria!

Xabier

Ba, ezkontzarako deia izan eta fraile joaten denak ez du burugabekeria arinagoa egiten! Ez da bestea baino errazago zeruratuko; zailago beharbada... Baina jeitsi gaitzen oraindik gehiago: frailetzako bidean, dei askotarikoak diren bezala -batak jesuita nahi du, besteak frantziskotar, honako honek kartujo, eta abar-, eta norberari egindako deia komentu berezi batean, ez beste edozeinetan, sartuta beteko duen bezala, halaxe gertatzen da ezkontzan ere... Ezkontzarako lehenbiziko gaia, elkarrenganako maitasuna da...

Begoña

(Fraile honek, dena dala, egi pozgarriak esaten ditu...)

Xabier

Nik orain jarriko dizutet adibide bat: egin eza-zue kontu mutil bat: Pello izena jarriko diogu...

Arantxa

(Isilka Begoñari) (Hori izen itsusia!)

Xabier

Errotazuriko Pello, Matxin Bizardoren Malentxorekin txoratuta dago; Matxin Bizardoren Malentxok berriz ez darabil Errotazuriko Pello beste ametsik buruan... Elkar maite dute eta elkarri ezkon-agintza eginak dira... Ba, horra: Pelloren deia ez da soil soilik ezkontzea; ez, enetxoak; Pelloren deia Malentxorekin, eta ez beste inorekin, ezkontzea da...

Begoña	(Su haundiz) Ederki esana!...
Andre Xerapi	(A! Horratik! Senargaia badin neskaxa honek! Nire Garbiñek ez duena)
Xabier	Ba inork, etxekoek batez ere, Pellori Malentxorekin ezkontzea galerazten badio, beste neska bat eztarriko zulotik sartu nahirik, zer gertatzen da? Hiru hauetako bat; Pello mutilzahar gelditu, edo beste nexka batekin ezkondu, edo fraile sartu... Nolanahi ere, bere bidetik kanpora bizi izan... Eta honetara behartu duenak infernuko su guztiak ez ditu aski...!
Miren	Ikara naiz!
Martíñe	(A. Xerapiz) (Hiretzat ez zagon hori gaizki!)
Andre Xerapi	(Martíñez) (Horiek horrela badira ez dun hik gardostualdi makala igaro behar!)
Begoña	(Zotin luze bat eginda) (Fraile honek egun bat Yonen etxean egingo balu!)
Xabier	Baina aspaldian ez genuen Jainkoa bedeinkatu. (Beste baso bat klink).
Begoña	Arren jarraitu, aba ona horrela.
Xabier	Banoa; banoa. Malentxo neskaxa ona da; baina ez du arditik. Pellok berriz etxeari begiratu behar dio bere irabazien bidez. Eta horra non datozen etxeokak esaten: "Mutil hau ezin daite- ke ezkondu eta ez da ezkonduko".
Martíñe	Edozer gauza!
Xabier	Zergatik ez, enetxook? Jaungoiko bat ez al dago goian? Berak Pellori eta Malentxori elkarbidea

egin eta bion elkar-maitasunari eder baderitzo,
nor da inor Pello ezkondu ezin daitekeela esate-
ko? Gaur ezin badu ere, ez al dio Jainkoak
garaia iristen denean, bidea erraztuko?...

Begoña

Hori esan, hori!

Xabier

Zuetakoren batek galde lezake: horretaz gero,
gurasoek ez al dute behin ere beren seme-alaben
ezkontzen aurka jartzeko eskubiderik? Ez dut
horrenbeste esan. Ezkontza zeharo debekatzeko
ez dute eskubiderik; baina, bai batzuetan beren
seme-alabei atzeratuarazten ahaleginak egite-
ko... Noiz? Egin ezazue kontu Malentxo izen
eta ibilketa gaiztoko neskatxa dela... Orduan
bai... Baina Malentxok arditik ez izatea, eta
Pellok gaurkoz etxeari eutsi beharra izateak ez
diote eskubide hori ematen. Eta Malentxo ona
izan arren, den bezala, edozein atso autubatzai-
lek, haren izena beztu-nahian badator ezkontza
egin ez dadin, zer merezi du orrek?... Deabruak
eraman beza!

Andre Xerapi

(Martiñeri) Zertan begiratzen didan horrela?
(Garratz).

Xabier

Amuarrainak betoz!

Andre Xerapi

Zer?...

Martiñe

Zer?...

(Neskamea agertzen da.)

Xabier

Betoz amuarrainak! Hauexek ere Jainkoak egi-
nak... Bedeinka dezagun Bera bere goragarriez!
Hauxe janez gero, ongi naiz mendian beste aste
bete igarotzeko!...

- Andre Xerapi Masusta hutsez?
- Xabier Masuste hutsez.
- Arantxa Pello eta Malentxoren ipuina bukatu al da?
- Xabier Oraintxe noa, maite; aurki azkena.
- Begoña Esan, esan!
- Xabier Pellok, toki guzietatik datozkion eragozpenak bide, batak ezin ezkondu daitekeela”, besteak “bere andregaia nolanahiko neska dela” eta abar, etsipenari burua ematen dio eta honela dio bere artean: “etxeak nire euspena, nire irabazia bear duela? Ezkontzea debekatu? Badakit zer egin. Komentu batean bakean nire egunak amaitzera joan eta kito”.
- Miren (Jauna, Jauna. Gizon honek goiko argiz hitz egingen du!)
- Xabier Zer gertatzen da? Pello gaur bertan ezkonduko balitz ere, nola hala bere sendiari gutxi nahiz asko laguntza ematen jarrai lezake; fraile sartuta berriz, kaixo motel; eskatu bai hobeto, eman baino... Horiek horrela direla, usteko duzue zuek bere etxekoek fraile joateari galerazpen biziagoa jarriko diotela ezkontzeari baino? Ez ba. Fraile joan nahi duk? diote. Joan hadi ba; goikoak lagunduko gaitik... Jainkoa arestian jaio balitz bezala... Eta Pello gizarajoa komentuan sartu da, fraile txar bat izango da, eta bertan sarrarazi zutenak Jainkoari egunen batean kontu estu-estua eman beharra izango dute!...
- Miren Arren, aba! (Oso atsekabetuta jaikirik) Ez jarraitu, arren! Bihar bertan ezkon bedi!

Xabier Zein? Ni? (Ikara handia agertuz).

Miren Ez, zuk ez duzu ezagutzen! Nire Yon, nire Yon!
Tira jaiki zuek ere! Goazen haren bila!

Xabier Egon, egon bakean; nik indarrak berritu arte
(Baso bat eskuan duela).

Begoña (Oso urduri). Yon! Pello! Malentxo! Arantxa!
Gogo-jardunak! Zortzi egun! Yonen tabakorik
eza! Zaldun aren fraile adiskidea! Ene Jainkoa!
Zer da hau? (Arantxaren burua hartu eta begi-
begietan begiratzen dio) Bai, bera da! Ama
zerukoa! Gezur honi azken ona eman iezaiozu!

VI. GUZIAK

(Yon sartzen da ta Xabierrengana doa eskuan mun egiteko asmoz;
Xabierrek bere eskua eman beharrean Begoñarena damaio).

Miren Yon! Yon! Hi haiz?

Martiñe Jaungoikoaren miraria!

Yon.- Barkatu, ama! Eta barkatu zuk ere, Begoña;
baina itsumustuan eta Gotzaiaren baimenik gabe
fraile bikain hau egin beharrean aurkitu naiz,
bestela esanda aintzakotzat hartuko ez zenituz-
ten egiak esan zitzan.

Miren Hau! Zure andregaia! Neskatxa egoki hau?

Yon.- Honek ez zuen zuk adina berri gezur honetaz.
Frailea eta ni bakarrik gara errudunak!

Martiñe Eta frailea?...

Yon Frailea (Bizar-jantziak kenduta) zure anaia

laztana da da, Xabier.

Arantxa

Ja, ja, ja. Txalo, txalo osabari! (Txaloka)

Xabier

Pello eta Malentxo. Barka biezait Jainkoak ez dagokidan jantziz jantzi banaiz, baina jantzi haiek gabe esan ditudan egiak esan banitu, ez zidan emakumeak jaramonik egingo. Ezkon zaitzte; zuen maitasuna gizonen txikikeriak hiltzeko ederregia da-eta: nik ere maitasun bat izan nuen eta ez jarraitzetik datorkit nire biziko zoritxar guzia. Aberatsa naiz, eta ezkondu zintezke, Pelloren beharkuna uzteko beldurrik gabe. Luzaro bizitzeko ez naizela ere igartzen dut, nire osasuna gazteegi gastatu dut-eta; hemendikantxe nire ondorengotzat aukeratzen zaituztet nire aberaskietan. Tira, Miren, neskatxa eder honen bekokian musu bat utzi ezazu...

Miren

(Negarrez) Zatoz, alaba! (Musu ematen dio).

Arantxa

Ez nuen nik esaten ezkontzea oso erraza zena? Hau poza! Txalo, txalo! Txalo Yoni, txalo Begoñari!.



E U S K A L A N T Z E R K I T O P A K E T A K

A Z P E I T I A

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALTZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON
 • ANASTASIO ALBISU
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA
 • ARKOTXA ANAIK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI
 “GARBIÑE”
 • EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN:
 Maria Arizmendi/Janamari Malharin/Miren Arrizabalaga
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984)
 Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933)
 Antzerkiak: Laño ta Izar
 Bi aizpak
 Ezkondu ezin ziteken mutilla